

# ...eta **Kitto!**

FIRIN FARAN: Bilboko Udal txistulari banda & Alos Quartet bihar kontzertuan • GAZTEKITTO: Alemaniako ikasleak Ignazio Zuloaga Institutura bisitan • KIROLEZ KIROL: Klub Deportiboko mendizaleen 20 urteko zeharkaldia • DANON AHOTAN: Oinezkoen harrapatzeak behera egin du • ERREPORTAJEA: II. Errepublika gogoan 77. urteurrenean



**634 zkia. EIBARKO ASTEKARIA 2008-IV-11**



## Astekaria hobetzea zure esku

### MULTIOPTICAS

1.ª ZERBITZU OPTIKOETAN  
[www.multiopticasgipuzkoa.com](http://www.multiopticasgipuzkoa.com)



J. Carlos Guerra 1  
Tel. 943 79 29 95  
**ARRASATE**

Bergara 16  
Tel. 943 76 75 75  
**BERGARA**

G. Muela 15 - 0905  
Tel. 943 32 66 68  
**DONOSTIA**

Eizabarrieta 2  
Tel. 943 20 85 22  
**EIBAR**

Kaldo Mitxelena, 7  
Tel. 943 51 78 17  
**ERRENTERIA**

Mendibil M. G.  
Tel. 943 61 89 01  
**IRUN**

J.M. Barandiaran Eng.  
Tel. 943 88 98 88  
**ORRIZUA**

San Francisco 23  
Tel. 943 89 84 70  
**TOLOSA**

Lea Artibai  
Ikastetxean ikasi  
ondoren kalitatezko  
lana daukat

Ate irekiak  
Apirilaren 19an  
10:30ean



- batxilergoa
  - Zientifikoa
  - Giza eta gizarte zientziak
  - Teknologikoa
- erdi mailako zikloak
  - mek2 Mekanizazioa
  - me2 Mantezimendu elektromekanikoa
  - fc2 Grotze instalazioak

- goi mailako zikloak
  - pc3 Plastikoa eta kautxuak
  - af3 Administrazioa
  - da3 Informatika
  - ia3 Elkargaiak
  - st3 Telekomunikazioak
  - sr3 Elektrizitate/elektronika
  - pm3 Mekanika diseinua eta fabrikazioa (CAD-CAM-CAE)
  - pf3 moldaketa eta sinterizaturako

**lea artibai**  
Ikastetxea

Xemein Etorbidua, 19,  
48970 Markina-Xemein, (Bizkaia)  
Tf. 94 616 90 02 fax. 94 616 91 00  
info@leartik.com  
www.leartik.com edo zuzenean www.th.leartik.com

**EGITARAUA:**

- 11:30 EKITAIKI PONTIKOS, GABRIEL ULLMANNEN, ROQUELOA UNIBAIKO KOORDINATZAILA nagusiaren eta JAVIER MADRADO GAZER BATUA BERDEAK-ENKO KOORDINATZAILA nagusiaren ESUTUKI, ESTALBARRIEN FURKAZUELA, ELIXABETE GOMEZ, EZKER BATUA BERDEAK-ENKO ZINBOZTZA EBARKO URBANAN
  - 12:30 Benbenaren KOPERA,
  - 13:00 HERRI-THEATROA,
  - 14:30 HERRI-BALOHARIA, EGUN OZDAN GAZER, HERRI-MUSIKA ETA UMENITZAKO JOHOSK EGONGO OINA.
- BASKURTZAKO ETARAZO AUTOBUSAREN JOGATZAKO, GAZER EMAN NAHI BARDUZU, ZIGURC URRALDE-EGOTZARRA BERTU:  
BILBAOAN: 94 470 21 00  
GIPUZKOAN: 943 47 42 77  
ARRAN: 945 13 04 01



**EzkerBatua**  
Berdeak



**ERREPUBLIKAREN EGUNA**

APRILAK 13, IGANDEA, EIBARKO UNZAGA PLAZAN



Euskara Elkarteak

**ARGITARRATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkarteak

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11 - solairuartera  
20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Leire Iturbe, Silbia Hernandez

eta Ekhi Belar.

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maidier Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

**Tfnoa:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Ekhi Belar

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ihintza Fernandez

**TIRADA:**

7.950 ale

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN:

1132 - 1679

*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

Sail honen helburua ez da euskera irakastea, ezta hiztegi bat egitea ere. Gure gurasoek eta haien gurasoek erabiltzen zuten euskara gogora ekartzea eta berreskuratzea da asmoa. Gaur egunean euskerak esparru guztiak hartu ditu eta gaur egun baino euskaldun gehiago ez da inoiz egon; baina, hala ere, oraindik euskera ez da erabateko komunikazio-tresna: hainbat gauza esatea kostatu egiten zaigu, ez dugu gazteleran bezalako erraztasunik eta trebetasunik. Sail honetan euskeraren alde adierazkorra landu nahi dugu, euskerak berez daukan gatzia eta berakatzat berreskuratu. Horretarako aurreko belaunaldietara jo dugu, gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera jatorraren berri jasotzeko.

**EDONAHÍ.-** Nonahi, edonon. "Edonahi, asko balio dau hamengo diruak".

**EDOTARIKO.-** Edozelakoa, edozein modutakoa. "Janarixa, edotarikua izanda be, ez etsan ardura".

**EDOZEINBESTE.-** Asko, mordoa. "Zabaldu zittuan sariak esandako tokixan, eta edozeinbeste arrain katiu zittuan".

**EDOZENBAT.-** Nahi beste. "Pagadi hartan, edozenbat perretxiku batu genduzen".

## IRAKURLEA PROTAGONISTA eskutitzak

### BILBOKO TXISTULARIAK

Txistulari hitza entzuten dugunean, berehala datorkigu burura bizitza guztiko kalejira eta dantzaldietako irudia. Gure kultura eta tradizioen zati dira, baina askotan, konturatu gabe, hanka sartzen dugu eta ez ditugu eurei dagokien tokian ipintzen.

Aipaturikoaren eredurik argiena honako hau da. Bilboko Txistularien Udal Banda txistuaren profesionalen osatua dago, gaur egungo gure herriko txistulari banda onena osatzen dutenak.

Interpreteen kalitatea, kontzertu honetarako aukeraturako lanak... guzti horrek, eta soka laukotearen laguntza-sonoritateak, kontzertu hori benetako bitxia bihurtuko dute, gaur egun beste edonon aurkitzea oso zaila izango zena.

Mozart, Bach... horrelakoak entzunak ditugu, baina kontzertu honetan gaur egungo lanak izango ditugu en-

tzungai, banda osatzen dutenendako espreski hemengo konpositoreek prestatu eta sortutakoak. Lan horiek, zailak izan arren entzuteko une batzuetan, kapritxoa dira guretako.

Laburtuz eta ez aspertzeko, bateren batek dantzaldi eta kalejiretako doinuak joko dituzten musikoen taldea aurkituko duelakoan badago, ahaztu dadila. Hori bai, goi mailako kalitatea duen musika entzun nahi badu, Coliseotik pasa dadila zapatuan. Eta, horrez gain, zalantzak badiu hiru zuloko flauta batekin egin daitekeenari buruz, bertan ikusiko du eta harrিতuta geratuko da.

Har ditzagun Eibarren ikuskizun handiak behar diren moduan eta eskertu diezaiogun gure Udalarri horrelakoak ekartzeko egindako ahalegina.

*Jose Miguel Iaskurain (Ulsartza Txistulari Taldea)*


## asteko esaldiak HEMEROTEKA

"Antenen enpresak jasotzen dituzten zigorrak sinbolikoak dira, telefonia oinarizko estazio batek 6.000 eurotik gorako irabaziaz lortzen ditu-eta egunero. Eta Espainian 40.000 antena baino gehiago daude. Udalek ezin dute horrelako instalazioak debekatu, zerbitzu publikoak baitira; dena dela, euren esku dago hori zelan egin arautzea"

*(Alberto Arrate, abokatu)*

"Especulazioa rock-era iritsi da eta lehen higiezinetan inbertitzen zutenak orain jaiakdiatara eman dira. Artistak makinaren dako odoloa besterik ez dira, ilegales taldeak zioen moduan. Inbertitu behar denak du garrantzia eta artistak jarraian hirurogeitahamaretik kontzertu eman behar baditu ere, horatik erlirik erdia kobratuz bakarrik, horek ez du garrantzirik"


*(Loquillo, abeslaria)*



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

**kutxa**

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

## Euskera ikastaroak merkatarietzat

**E**ibar Merkataritza Gune Irekiak (EMGI), Eibarko Udalaren eta Udal Euskaltegiaren laguntzarekin, herriko merkatarietzat euskera ikastaroa antolatu du hirugarrenez. Dendari eta tabernariak euskeraz oinarritzko ezagutzak jasotzea edo dakitenaren inguruan sakontzea da ikastaroaren helburua eta klaseak ekainera arte emango dituzte, Udal Euskaltegian, astean birritan.

EMGI horrelako ikastaroa antolatzeko duen hirugarren urtea da hau eta aurreko urteetakoek jasotako emaitzak oso pozgarriak izan direla

diote arduradunek: *"Aurreko urteetan parte hartu dutenek ikastaroa lutzazeko eskatu digute"*.

Dagoeneko hogeitabat lagunek eman dute izena ikastaroan, baina oraindik ikastaroan parte hartzeko aukera dago. Interesa dutenek 943-254083 (Leire), 943-708400 (Jon Sasiain) edo 943-708435 (Junkal) telefono zenbakietara deituta eman dezakete izena. Ekimena merkatarietzaren alorrean euskararen erabilera sustatzeko helburua duen 'Euskarak saltzen du' kanpainaren barruan kokatzen da.



**Euskarazko oinarritzko ezagutzak edo dakitena sakontzeko jasotzeko aukera emango die ikastaroak.**

EKHI BELAR

## Parkinsonaren Nazioarteko Eguna

**G**aur Parkinsonaren Nazioarteko Eguna gogoratzen da mundu mailan eta, urteroko moduan, egun horren inguruan antolatu du Deparkel elkarteak urteroko batzarra: bihar, zapatua, izango da batzarra, 13.00ean Eibarko Bizikleta plazan dagoen Kasinoan. Batzarra eta gero, Azitain erretegiaren bazkaria egingo da eta elkarteak bazkide asko batzea espero dute. Batzarrean, besteak beste, azken urtean elkarteak egindakoen berri emango dute eta Ardantzako lokala noiz zabalduko den ere azalduko diete bazkideei. Orain arte Ipurua kiroldegian lagatuko lokal batean eskaintzen ditu zerbitzuak elkarte

honek, baina hemendik gutxira Ardantzaren babes ofizialeko etxeen azpian lokala inauguratuko da. Elkarteak arduradunen iritziz, lokal berriari esker jendearengana modu errazagoan ailegatuko dira eta zerbitzu hobea emateko aukera izango dute.

Parkinson gaitzak 100.000 lagun eragiten dio estatu mailan eta 65 urtetik gorakoan artean gaixotasun neurodegeneratibo ohikoena da. Gaixoen %20ri 40 urteak bete aurretik antzematen diote gaitza eta, oraindik sendabiderik aurkitu ez denez, aurtengo Parkinsonaren Nazioarteko Egunean ikerkuntzari bultzada eman nahi izan diote.



IKER ARANBERRI

**Deparkelak hilabete honetan bertan inauguratuko du lokal lokala Ardantzako etxebizitza berrietan**

**EGOITZA NAGUSIA**  
Bidebarrieta 20 - behea

**FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- Tanatorioa eta Errausketa labea Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

**Mugica Ehorzketa**  
Funeuskadi taldea

**TELEFONOA (24 ORDU)**  
**943 201 951**

**Gariteno**

1957an sortua  
**GOZOTEGIA**

- **ETXERA** banatzen dugu
- **Ezkontza eta despedidetarako TARTAK**

Julian Etxeberria, 6  
Tel. 943 20 24 51

**KATU KALE**

**TABERNA**  **BIDEBARRIETA, 1**



## autuan

### ARALAR ETA ERREBAL CENTER

Errebal Center proiektuaren inguruko azalpenak emateko batzarrerako deia egin dute Aralar alderdiko Eibarko ordezkariak eta merkatu plazan egingo denaren inguruko interesa duten guztiei hara agertzeko gonbitea egin nahi diete. Eguaztenean, hilaren 16an izango da batzarra, 19.00etan Arrate Kultur Elkartearen Aralarrek hitzarmen horren inguruko alegazioak aurkezteko asmoa dauka eta proiektuaren nondik norakoak azalduko dituzte batzarrean, alegazioa aurkezteko arrazoierekin batera.

### ZEZENETARAKO SARRERAK

Ignazio Zuloagaren omenez maiatzaren 11n egingo den zezenketarako sarrerak asteburu honetan ipiniko dituzte salgai: Arkupe, Leo, Jose Luis, Sayoa, York, Chalcha, Terraza, Borda, Trinkete, Txoko, Ongi Etorri

eta Agñiaspi tabernetan, Rosa eta Blenda ileapaindegietan eta Ermuko Outumuro tabernan egongo da sarrerak erosteko aukera. Sarrera merkeenak 35 euro balio du eta garestienak 80 euro. Erretserbak egiteko aukera ere badago, 652700914 telefono zenbakian (10.00etatik 20.00etara) edo comisiontaurinadeibar@gmail.com helbidera idatzita. Sarrerak aldeztu aurretik erostea komeni da.

### 27.000 EURO JUBILATU ETXEENTZAT

Gizartekintza sailak aditzera eman duenez, jubilatutako etxeek diru laguntzak eskatzeko epea zabalik dago. Denbrea 27.000 euroko aurrekontua dago eta jubilatutako etako arduradunek hainbat arlotarako laguntzak eska ditzakete: hitzaldiak, ikastaroak, txangoak, kontzertuak, dantzaldiak edo bestelako jaialdiak adibidez. Maiatzaren 2ra arte aurkeztu daitezke eskaerak, Pegoran.



### Garraio publikoaz

**L**erro hauek idazten ari naizen momentu berean, Europako herrialde menditsu batetik barrena bidaiaria bat prestatzen ari naiz. Horixe dauka ona internetek, bada bi gauza batera egiterik.

Erraza egiten ari zait bidaiaria prestatzearena gainera. Herri batetik bestera joan behar duzula markatu eta web zerbitzuak soluzio osoa ematen du: trena hartu eta bailarako hiriburura, hortik herritxo batera autobusez eta bertatik, posta zerbitzuaren autobusa hartuta, txangoaren abiapuntu izango dugun mendilepora. Baita bidaiaren kopurua eta zati bakoitzaren iraupena ere. Eta guztia lehen leihatilan erositako txartel bakarrekin.

Badago herrialde batean hasi eta beste batean bukatzeko aukera ere, garraio txartel berdina erabiliz.

Azken urtean geurean garraio publikoak aurrerakada handia egin du Lurraldebus zerbitzuarekin. Baina inguruko beste lurralde batzuekin konparaketa egiten hasten naiz eta urrutitara gertatzen da dena.

Interneten sartu eta Eibar eta Markinaren arteko autobusik aurkitu ez. Eta hortik hurrera hauek eta mila.

Hondarritik gertu baina estatuko mugaz bestalde dagoen Azkainerako garraio publikoaren aukera begiratu hasi naiz. Egon bada, baina egun bat baino gehiago behar dut batetik bestera joateko eta aldizkari hau bezalako tartea web bidez nola bilatu eta kontratatu daitezkeen azaltzeko. Aio. Banoa beste herrialderantz.

**Oier San Martin**

## Ikasketa eskaintza zabala Zerikasi-n

**A**urreko astean aurkeztu zuten Zerikasi zerbitzu berria Elgoibarren, IMHko erakinean: Deba, Eibar, Elgoibar, Mendara, Mutriku eta Sorluzeko bizilagunei era guztietako prestakuntzari buruzko informazioa, orientazioa eta aholkularitza hurbiltzeko zerbitzua izango da, erabat doakoa, aurrez-aurre eta internet bidez eskainiko dena [www.zerikasi.com](http://www.zerikasi.com) webgunearen bidez.

Zerbitzuaren arduradunek aditzera eman dutenez, "Eusko Jauriaritzako Etengabeko Ikaskuntza Zuzendaritza Europar adostutako ildo estrategikoa garatzen ari da, pertsonen garapena etengabeko prestakuntzaren bidez landuta, gizarte aktibo eta aurreratua izatera ailegatu gaituzten". Biztanle bakoitzarengana hurbiltzeko asmoz, eskualdeko antolatutako zerbitzuak.

Aurkeztu berri badute ere, Zerikasik dagoeneko lanean dihardu hiru hilabetez eta Debabarreneko 90 erakunderekin egon da harremanetan, prestakuntzari buruzko informazioa jaso eta informazio hori eguneratuta izateko.

Eskaintzen den informazio mota, berriz, oso zabala da: "Jostungintzatik hasi eta tai-chi ikastarotik pasata, unibertsitate mailako edozein ekin-



### Zerikasi proiektuko arduradunak eskaintako prentsaurrekoko argazkian.

tza izan daiteke. Horregaitik, Zerikasik eskualdeko biztanle guztiei adierazi nahi die edozein motako ikastaroa ematen badute, Zerikasira deitzeko (943748271 telefonoa), ematen duten formakuntza edo ikastaroen berri emateko". Webgunean erregistratuz gero, informazioa zuzenean sartzeko aukera ere badago.

## Eskualdeko industria aztergai



**M**artitzenean, 11.00etatik aurrera 'Bai Industriari!' kanpainaren barruan mahaingurua egingo da Debegesan. Besteak beste, eskualdeko arduradun politikoak, hezkuntza zentruetako zuzendariak, Debegesako ordezkariak eta eskualdeko enpresariak hartuko dute parte. Mahainguruan gaur egun eskualdeko enpresek lanpostu in-

dustrial eta teknikoak betetzeko dituzten zailtasunak, gazteen zatik ikasketa industrial eta teknikoak eskaintzen dituzten aukerak, Debabarreneko eredu ekonomikoak eskaintzen dituen abantailak, emakumeak sektore honetan duen presentzia indartzearen garrantzia eta beste hainbat aztertu eta arazo horiei erantzuteko estrategiak proposatu dituzte.

## Topagunearen Batzar Nagusia

**T**opagunea Euskara Elkartearen Federazioak urteko Batzar Nagusia egin zuen asteburuan Durangoko Plate-ruena Kafe Antzokian. Karmen Irizar, Topagunearen lehendakariak, "Euskara elkartearen mugimenduak 2008an 25 urte betetzen dituela" azpimarratu zuen eta kontuan hartzeko moduko datuak eman zituen: "20.000 bazkide dituzte Topaguneko kide diren euskara elkarteek, 1.400 boluntariorik gora ari dira elkartearen bueltan lanean eta 350 profesional baino gehiagok egiten dute lan zuzenean euskara elkar-teentzat. Hamar milioi eurotik gorako aurrekontua izan du euskara elkartearen mugimenduak azken urtean".

Horrekin batera, azarorako jardunaldiak iragarri zituen eta gai modura 'Euskara elkarteak eta sormena' landuko da jardunaldiotan.

Bestalde, bazkide be-



Elena Laka eibartarra, eskumatik bigarrena, zuzendaritza kide berria da Topagunea Euskara Elkartearen Federazioan.

rriak onartu ziren Batzar Nagusian, Nafarroako lau euskara elkarte: Altsasuko Kima elkarteak, Lizarrako Garean elkarteak, Berriozarko Zorroka elkarteak eta Agoitzeko Karrika elkarteak. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako 90 bazkide ditu orotara federazioak gaur egun.

Zuzendaritza Batzordea berritzea erabaki zuten

azkenik, lau kide berri onartuta: Elena Laka (Eibarko ...eta kitto! Euskara Elkarteak ordezkarria), Joseba Llano (Arabar Errioxako Ttiki-Ttaka Euskara Elkarteak ordezkarria), Aitor Izagirre (Arrasateko Txatxilipurdi Elkarteak ordezkarria) eta Karlos Gonzalez (Deustuko Berbaizu Euskara elkarteak ordezkarria).



SILBIA HERNANDEZ

## Auto-harrapatzeak %70 jaitsi dira azken 20 urteotan

**A**zken bi hamarkadetan %70 jaitsi dira auto-harrapatzeak Eibarren. 80. hamarkadan ehun bat auto-harrapatze zenbatzen ziren urtean herrian, baina zifra hori nabarmen jaitsi da azken urteotan. Horrela, 2007an 12 auto-harrapatze, horietan hildako bat eta 14 zauritu zenbatu zirelarik, eta 2006an 14 auto-harrapatze zenbatu ziren.

Auto-harrapatzeen biktima gehienak pertsona nagusiak izaten dira zenbakien arabera. Gainera, istripu hauetariko gehienak zebra-bideetan edo hauen inguruan gertatzen dira. Datu honek bereziki arduratzen du Udaltzaingoa, Euskal Herri osoan errepikatzen den gauza bat delako.

Auto-harrapatzeen kopurua jaisteko asmoz neurri ezberdinak hartu dira herrian. Horrela, abiadura moteltzeko bandak ipini dira errepidean, zebra-bideetarako sarrerak zabaldu dira, eta kontzientziario eta sentsibilizazio kanpainak jarri dira martxan gidari eta oinezkoentzat.

## Armeriako Ikasle Ohien Urteko asanblada



LEIRE ITURBE

**A**rmeria Eskolako Ikasle Ohien Elkarteak Urteko Asanblada ospatu zuen joan den zapatuan. Ekitaldien artean, MCCko presidentea izan zen Antonio Canceloren hitzaldia egon zen. Bestetik, Industri Argazkilaritza Digita-

leko Lehiaketako sarituen lanak ikusi ahal izan ziren eta anaiarteko bazkaria ospatu zuten Arrateko Cantabria jabetxean. Gainera, 1958.ko eta 1983.ko promozioek, 50. eta 25. urteurrenako domina eta diplomak jaso zituzten, hurrenez hurren.

## Merkatu plazako baserritarrak panel berriekin babestuago

**P**anel berriak jarri zituzten joan den astean merkatu plazan hotz eta eurien-erresistentzia babesteko. Errebaleko merkatu plaza laga eta Rialtora joan zirenetik, baserritarrak ke-

xu ziren euri eta hotzarengandik ia babesik ez zutela esanez. Denborarekin babesak lortuko zela esan zitzaizen eta panel berri hauekin baserritarren kezak asetzeko nahi izan du Udalak.



EKHI BELAR



*Espainiako justizia dudan ipiñi da azken aldixan. Grebak, geldotasuna, Mari Luz-en kasua, segurtasun faltia... mogimendu asko egon da zuzentasunaren gaiñian. Hillabete bittan zihar, otsailaren 4tik joan den astelehenera arte, egon dira greban ez-eskualdatutako Justizia Administrazioa funtzionarioak. Euren eskakizunen artian,*

*irabazitako dirua materixa honetan gaittasunak dakazen beste autonomixetako funtzionarioenakin parekatzia zeuan. Funtzionarioak euren soldatia igotzeko eskatzen eta estatua, bere aldetik, zerbitzu minimuak ez betetziagaittik neurrixak hartzen. Kaltetuak, betiko moduan, herritarrak. Prozesu judizial asko geldirik geratu dira grebiangaittik eta lehendik geldua zana gehixago moteldu da holan. Kritika asko jaso dittu beran geldotasun horregaittik Espainiako justiziak urtietan zihar. Askok zera esaten dabe: "Justizia geldoa ez da justizia". Baiña kritikak ez dira hor geratzen bakarrik. Askok uste dabelako be justizia boteria dakatenek kontrolatzen dabela eta dirua dakanak eskubide gehixago dittuala ez dakanak baiño. Platonek esan zebanez: "justua izango da bakarrik zorionsua eta zorigaiztokua injustua". Zoriontasuna bilatu bihar dogu.*



**Laura García**  
**31 urte, langabia**

Legiak gogortu biharko ziran eta, behiñ hori eginda, danak bere osotasunian bete. Hau da, jarritako zigorra osorik betetzia. Bestalde, prozesu judizialak arindu egin biharko zittuzten, ez izatia hain luziak. Gauza txarrak egitten dittuanak ordaindu egin bihar dau egindakungaittik.



**Tomas Bringas**  
**65 urte, jubilaua**

Justiziaren martxia ona izateko gaborra gehixagorekin egin biharko zittuzten gauzak. Xerezeko alkatiak, Pachekok, esaten eban moduan, "hau txantxa bat da". Konponbidia ikusten detsat gauziari, baiña ez epe motzian, luzerako jungo dan gauza bat dala begittantzen jata.



**Julen Pato**  
**15 urte, ikaslia**

Ba ez dakitt zer erantzun. Azkenaldixan egon dan grebian inguruan ez dot informaziño asko jaso, holan, ezin izango neban gauza askorik esan gai horren gaiñian. Gauza asko hobetu biharko lirakezela uste dot, baiña bueno, egixa esan holako kontuek ez jataz asko interesatzen.



**Mª Dolores Rodríguez**  
**78 urte, jubilaua**

Gauzia da danondako egon bihar dala justizia, ez batzurendako bakarrik. Horretarako, nik uste dot bakia topau bihar dala eta danak alkarrekin aurrera egittia. Egixa esan justiziako gauzak nahiko motel juaten dira, estatuko papelekin egitten dan edozer juaten da astiro-eta.

*Zer egingo zenduan justiziaren martzia hobetzeko?*

**Herri Irratia Eibar**  
Loyola Media

**Cordoba C.F. - S.D. Eibar**

Jarraitu partidua:  
**Borja Rodríguez**  
eta Herri Irratiko  
kiroletako taldearekin


**90.7 Fm**

**Apirilak 12, zapatua 18.30etan**

Astero etxian jasotzen dozen astekarixa zelan hobetu leikian aztertzen gabiz eta horretan gure irakorliak zer esan badakazue. Horregaittik, astekarixa zeuen gustura moldatzeko aukeria eskindu nahi detsuegu, zuen iritzi eta proposamenak jasotzeko tartia eskinduta. Lehelengo pauso batian gaurko aldizkariarekin batera banatu dogun inkestia bete eta bueltan bialdu zeinkie. Horrez gain, iritzi zihetzaguak jasotzeko asmuarekin aurrerago telefono bidezko inkestak egingo dittugu. Dato guztiak jaso eta prozesauta, aldizkari hobia egitteko biharrian segiduko dogu, eskintzen dogun produktua etenbarik mejoratzeko gogua bidelagun.

# ...eta kitto! astekarixa hobetzia zeure esku

**G**aurko aliarekin batera jaso dozen inkestia oso modu erreziai betetzeko modukua izaten ahalegindu gara. Astekarixa jasotzen dozen guztiengana aillegatzeko asmuarekin, astekarixarekin batera buzoian sartu detsuegu inkestia: lehelengo hiru galdere-tan bakotxak nahi daben moduan erantzun leike, horretarako laga dogun tartian idatzitta. Hortxe azaldu leikez astekarittik gehixen eta gitxien gustatzen jatzuezen gauzak, edozeiñ arlokuak: hizkuntzari buruzkuak, estiluari buruzkuak, edukixeri buruzkuak, emoten dan informaziñuari



**ASTEKARIXAREN GAIÑEKO GALDETEGIXA BANATU DOGU, IRAKORLIEN IRITZIXAK JASOTZEKO**

buruzkuak... Adibidez, zeñi gustauko litzakizu entrebistia egittia? Edo zeren gaiñeko erreportajia irakorriko zenduke gustora? Rebista osua koloretan izatia nahiko zenduke?

**16.000 inkesta banatu  
dittugu aste honetako  
aldizkariarekin batera.  
Hamabost egun ditzue  
erantzuteko**

### **Erreza eta laburra**

Bestietan, barriz, markatxo bat egittia nahikua da. Inkestia betetzeko ez da denpora larregi pasau bihar eta guretako, barriz, oso mesedegarrixa izango da zeuen iritxixa zein dan ezagutzia. Behin beteta dakazuenian, kolia dakan aldia piskat umeldu eta tolostuta pegau bihar da. Edozein buzoitan laga eta sellua ipiñi barik guregana aillegauko da. Apirillaren 25a baiño lehenago bialdu bihar da. Aldizkari bakotxarekin inkesta bi banatu dittugu, baiña etxeren batian zeozer esan nahi daben lagun bi baiño gehixago bal-



## Maiatzaren 15ean ekingo hasiko du Aztiker enpresak telefonoz egindako galdetegia. 16 urtetik gorako eibartarren artean 900 inkesta guztira

din badago, gure buleguan inkesta gehixago jaso eta betetzeko moduan egongo dira (Urkizu, 11n solairuartian gagoz). Eta, bestela, internet erabiliz gero, gure webgunian (www.etakitto.com) bertan inkesta on-line betetzeko aukeria be badago. Galderak euskeraz egin badittugu be, baten batek euskeraz idazteko zailtasunak baldin badittu edo gazteleraz hobeto moldatuko dala pentsatzen badau, lasai asko erantzun leike gazteleraz.

### Telefonoz be galdetegia

Behin lehelengo pauso hori emonda eta lehelengo hartuemonaren ondoren, telefono bidezko galdetegiak egitten hasiko gara maiatzian. Telefono bidezko galderak Aztiker enpresako profesionalak egingo dabe, Eusko Jaurlaritzak horretarako emon daben dirulaguntza berezixari esker. Eibarko 900 etxetara deittuko dabe, 16 urtetik gorako eibartareri galderak egitteko. Galdetegixari esker guretako oso informaziño baliagarria jasoko dogu, baiña erantzuteko galdera errezak izango dira, batzuk erantzun zihetza eskatzen dabenak eta beste batzuk, barriz, erantzun zabalagua emoteko aukeria eskin-



7.950 ale banatzen dira astero; Eibarko buzioien %85.

tzen dabenak. Jasotako erantzun guztiak ondo aztertuko dittue Aztikerrekuak eta, ondoren, datu guztiak prozesau egingo dittue, ondorixuak etara ahal izateko. Erantzuten daben jendiak esandakeri esker, dakagun irakorle kopuru zihetza, egitten dittugun alkarrizketen gaiñeko baloraziñua, estiluaren ingurukua, euskalkixa erabiltzeko ohitturia, irakorliak aldizkarixari ikusten de-tsazen alde positibo eta negatibuak... jakin-gu dittugu.

### Emaitzak uda ostian

Galdetegixak egitten maiatzaren 15ian hasiz gero, 15 bat egunian dei

guztiak eginda eukiko dittuela aurreikusi dabe aztikerrekuak. Halanda be, denpora gehixago emongo dabe erantzunak sailkatu, aztertu eta bestelako biharretan. Euren kalkuluen arabera, julixo inguruan datuak prozesauta egongo dira. Halanda be, udako oporrak-eta tartian egonda, ...eta kitto! astekarixan jasotako datuen ondorixuak irallera arte ez dittugu kaleratuko, zeuek be jakin deizuen herrixan astekarixaren gaiñian jendiak zer pentsatzen daben.

### ...eta kitto! 20 urte

Aurtengo abenduan 20 urte beteko dittu ...eta kitto! astekarixak. Hillian behiñ oso modu apalian kaleratzen hasi zan tabloide itxurako aldizkarixa, gure moduan, urteikin hazten juan da, itxurabarritzen: gaur egunian Eibarko buzioien %85era aillegatzen da astero, 7.950 ale banatzen dira Eibarren eta baita Eibartik kanpo be. Urtian 450.000 euroko presupuestua erabiltzen dogu horretarako eta presupuestuaren zati bat, %40 inguru, dirulaguntza publikueri esker lortzen dogu.

20. urtebetetzia aldaketarako momentu egokixa izan leikela begittantzen jaku. Guri moda eta sasoi barrixetara egokitzia gustatzen jakun moduan, ...eta kitto! Astekarixak be gaurko sasoi moldatzia biharko dau ba! Baiña ez edozeiñ modutan, kanbixua jendiaren gustuen eta premiñen araberakua izatia nahi dogu; eta aldaketa horretan zeuk be parte hartzia nahi dogu, azken batian ...eta kitto! astekarixa danon artian egitten dogulako. Ointxe dakazu astekarixan parte hartzeko aukeria. Danon onerako izango da.



20 urte beteko ditu aldizkariak abenduan. Inkestaren emaitzak etorkizuneko ...eta kitto! diseinatzen lagunduko du.

# teen-ajeak



**EKAIN LAZKANOK**  
*margolaritza oso justoko du eta horretarako doaiak ditu gaimera. 13 urteko mutiko komak hainbat sari jaso ditu orain arte esjindako koadroengatik.*

## “Margotzea marraztea baino nahiago dut”

**-Margolaritza gustoko duzu eta, gainera, sariak jaso dituzu zure lanengatik...**

Sari bi jaso ditut. 2007ko Aratosteetako kartel lehiaketa irabazi nuen ‘Ovnia’ izeneko koadroarekin eta San Andre-setako kartel lehiaketaren garailea ere izan naiz. Iaz aire zabaleko margolaritza lehiaketan bigarren postua lortu nuen.

**-Zerk animatzen zaitu lehiaketan parte hartzera?**

Andereñoarengatik hartzen dut parte gehienbat. Izan ere, beregatik izango ez balitz, ez nuke jakingo lehiaketa horiek antolatzen direnik ere.

**-Betidanik izan duzu gustoko margolaritza?**

Bai, txikitatik gustatu zait.

**-Nola inspiratzen zara margotzerako orduan?**

Ba adibidez, asteburuan asko gustatzen zaidan paisaia bat ikusten badut, hori margotzen dut.

**-Zela margolaritza mota duzu nahiago?**

Oleoa. Margotzea marraztea baino nahiago dut; oleoarekin kolore politak eman ahal dizkiet koadroei. Era berean, nahiago dut akuarela arkatza baino.

**-Zela da zure margolari gustokoena?**

Nire osaba.

**-Nagusitan margolari?**

Momentuz ez dut horretan pentsatzen, baina gustatuko litzaidake hortan aritzea.

# Willkommen Eibarrera!

**B**ihartik aurrera herrian ile-hori asko ikusten baduzue ez zaitezte harritu, izan ere, Eibarrek inbasio alemaniarra jasoko du aste batez. Balingen Gymnasium-eko ikasleak izango dira ile-hori horiek eta lasai, printzipioz, ez dira arriskutsuak. Inbasio baketsua izango da, anaitasunezkoa.

Ignazio Zuloaga institutuak 14 urte daramatza atzerriko ikastetxe ezberdinekin elkartrukeak egiten. Aurreko urtetan Ingalaterrako St. Wilfrid eta Danimarkako Allerod

Gymnasium izan dira eibartarrekin elkartrukeak egin dituzten zentruak, institutuko en arabera, bai alderdi pedagogikotik, bai pertsonaletik “oso arrakastatsuak” izan zirenak. Esperientzia positiboa izanda, aurten ere ekimen berarekin jarraitzea erabaki zuten institutukoek.

Alemaniak hartu die lekua aurten Ingalaterra eta Danimarkari. Hain zuzen ere estatuaren hego-mendebaldean (Suitzako mugatik hurbil, Baden Wuttenberg eskualdean) dagoen Balingen hiriko Balin-



## HOROSKOPOA

### ARIES

Haginak egunean hiru aldiz garbitzen dituzu? Ondo zaindu behar dira hortzak, bestela mina izango duzu eta kendu egin beharko dizkizute, eta horrek bai ematen duela mina. Zure irrifarrea, gainera, ederra da!

### TAURUS

Astea makal hasiko duzu, baina era paregabean amaituko dituzu egunak. Hasieran izango duzun gogo falta di-da batean pasatuko zaizu eta bizi poza izango duzu geratzen diren egunotan. Bilakera horrek guztiak harrutuko ditu!

### GEMINI

Azken aldiak despistatu samar zabilta. Ez diozu ezerrri atentzioa jartzen eta gauza asko ahazten zaizkizu. Agian agenda bat erosi beharko zenuke, baina arazoa zure buruan dago. Hainbeste txori dituzu...

### CANCER

Arreta gehiago eskainiko diezu zure inguruan daudenei hurrengo egunotan. Azken boladan zure kontuetaz arduratu zara soilik, baina konturatuko zara munduan ez zaudela zu bakarrik eta ingurukoek ere zure beharra dutela.

### LEO

Zu zara animalia guztien artean erregea eta horrela sentituko zara datorren astean. Denak egongo dira zure menpe, zure esanetara eta zuk nahi dutena egiteko prest. Eseri zaitez tronuan eta agintzen hasi! Aukera paregabea, ezta?

### VIRGO

Jainkoaren hitza entzun duzula? Tira, zapatuetan lasaiago ibili beharko zinateke. Bakoitzak bere sinismenak ditu, baina zuk ikusi zenuena ez zen amabirjina, zure komuneko argia zen. Entzun zenuenari buruz, zer esango dizut ba...

### LIBRA

Lagun batek zur eta lur utziko zaituen zerbait kontatuko dizu martitzenean. Sinestea ere kostatuko zaizu, baina bai, egia izango da berak esandakoa. Hori bai, sekretu hori ondo gorde beharko duzu! Ea gai zaren!

### SCORPIUS

Aste berri bat, baina betiko gauza bera. Monotoniak aspertzen zaitu? Ba bilatu gauza berriak, ondo pasatzeko era eta bide berriak. Zure esku dago monotonia hori apurtzea, baina gauza da eroso zaudela egoera horretan.

### SAGITTARIUS

Jende berri asko ezagutuko duzu hurrengo egunetan. Zuk duzun hitz erraztasunarekin normala da jendea ezagutzea, oso atsegina zara eta zure izaerak hortan laguntzen du. Hala ere, egon zaitez adi zenbait pertsonarekin.

### CAPRICORNIUS

Udako jaiak faltan botatzen dituzu? Ba oraindik itzarotea besterik ez zaizu geratzen. Hala ere, egun bakoitza festa bat izan daiteke zuk nahi izanez gero. Prestatu zaitez, izan ere, eguaztanean egun zoro bat biziko duzu.

### AQUARIUS

Noiztik ez duzu liburu bat irakurtzen? Irakurtzeko ohitura hartu beharko zenuke, nahiz eta tontakeria iruditu, egunerokotasunean ere lagunduko dizulako. Aukeratu liburu egokia eta hartu behar duzun denbora hura irakurtzeko.

### PISCIS

Telefono mugikorra belarrira itsatsita daukazu, zenbat diru gastatzen duzu dei eta mezuetan? Hainbesterako beharra daukazu? Gero diru gutxi daukazula kexatzen zara. Nola ez duzu ba gutxi izango? Kontrola zaitez.

gen Gymnasium-arekin egin dute elkartrukea Ignazio Zuloaga institutukoek.

### Elbartarrak alemanian

Eibartarrak izan dira elkartruke honetan mugitu egin behar izan diren lehenak. Horrela, institutuko 31 ikasle eta irakasle 2 Balingenen izan ziren martxoaren 3tik 9ra. Ikasleen esanetan, "egitarau opa-roa izan genuen, orekatua". Eibartarrek, klaseetara joateaz gain, aisialdirako aukera izan zuten eta, gainera, hainbat txango ezberdin egin ahal izan zituzten. Besteak beste, Stuttgart-en dagoen Mercedes autoen museoa, Constanza aintzira eta Tubingen hiri unibertsitarioa bisitatu zituzten. "Esperientzia ahaztezia izan zen", institutuko berbetan.

### Alemaniarrek Eibarren

Alemaniarrek Eibarrera etortzeko ordua heldu da orain. Bihar eguerdian iritsiko dira herrira eta hilaren 19ra arte egongo dira gurean. Harrera ezin-

bea izango dute germaniarrek, izan ere, Kezkakoek ohorezko dantza eskainiko diete eta, ondoren, luntxa izango dute institutoan bertan.

Domekarako ikasleek ez daukate ezer programatuta, baina astelehenezik zapaturara arte ez dute geldirik egoteko aukerarik izango. Astelehenean, goizean goiz, euskararen gaur egungo errealitatea eta historian zehar izandako bilakaeraren

berri jasoko dute alemaniarrek eibartarren ahotik. Honen ostean, esku pilotan jokatzeko aukera izango dute bisitariak eta 'Ama Lur' filma ikusiko dute.

Martitzenean autobusa hartu, eta Txillida Leku eta Donostia bisitatuko dute elkartrukean partehartzen dutenek. Eguaztenean Eibar ezagutzeko aukera izango dute, besteak beste, Unbe, merkadiloa



Klaseetara joateaz gain, aisialdirako aukera zabala izan zuten eibartarrek Alemanian.

eta Portalea. Eguenean autobusa hartuko dute berriro, bai alemaniarrek, bai eibartarrek, izan ere, Bilbora joango dira, eta bertan, Guggenheim museoa bisitatzeko aukera izango dute. Egonaldiaren azken egunean, barixakuan, sei taldetan banatuko dira elkartrukeko partehartzaileak eta talde bakoitzak elkartrukean jasotako sentsazioak islatuko dituzte mural batzuetan.



### Kurrikuluma

Mileurista terminoa interesgarria iruditu zitzaidan estreinakoz Xabier Aierdi soziologoari entzun nionean, baina dagoeneko termino aspergarria egin zait. "Gogor estudiatu, curriculum ona izateko" abisatzen dugula eskolan zein etxean. Ez naiz gero ni izango estudiatu beharra tutuluko estratara botako duena, baina ikasketak horiek curriculumaren aitzakiaz eginez gero, mileurista perfektua izateko bidean egongo garelakoan nago. Hori nahi baldin badugu, aurrera.

Ikasketak, jatorriz, ez dira curriculum enmarkagarri bat lortzeko. Harrigarria bada ere, lanean trebatzeko asmatu ziren bere garaian ikasketak. Bai, XXI. mendeko deskubrimendua egin berri dut, ezta? Tontakeria dirudi, baina hori argi izanda, curriculumik gabe bere trebakuntza erakusteko gai denak, uste dut badaukala egungo lan-merkatuan arrakasta izateko aukerarik. Gari Araolazak blogariak Seth Godin aipatuz dion bezala, "lan eremu bakoitzean aukeratu beharko da zertan nahastu burua, baina ez utzi aukera pasatzen espediente akademiko zoragarri baten trukean". Alegia: estudiatu estudiatu beharrekoa eta saltseatu, saltseatu... hori izan daiteke-eta zure kurrikulum onena.

**Josu Mendikute**

## Antzerki solidarioa La Sallen

Gaur bertan La Sallen ikasten diharduten 1. Batxilergoko ikasleek antzerki solidarioa egingo dute. Antzezlanak, "Sabina y las brujas", Eibarko Unibertsitate Laboralean izango da. Bertan jasotakoaren erdia Proyde-Proegak, La Salleko GKEak, Boliviako baliabide gutxiko umeei bidaliko die. Eskolaz kanpoko ekintza hau aurten egingo da lehendabizikoz eta "elkartasun irekiaren" aldeko baloreak lantzen ditu. Emanaldi bi egingo dira: 11:30ean Azitaingo ikasleentzat eta 19:00etan nahi duenarentzat.



## Euskal Astea ere egin dute



Bestalde, aurten ere Azitaingo La Salle ikastetxeak Euskal Astea ospatu du. Ikasleek aukera paregabea izan dute, hainbat ekintzaren inguruan, euskaraz jarduteko. Urte guztian egiten den arren, indar berezia ematen zaio egunotan.

Ahaztuak 1936-1977 elkarteak estatu kolpearen, errepresioaren eta Francoren erregimenaren biktimek osatzen dute.

Errepublikaren 77. urtemuga dela-eta, bigarren urtez jarraian Eibar aukeratu dute gure herria 'Gora Errepublika! Gora herri borondatea!' lemapean bihar 13.00etan Untzagan egingo dituzten ekitaldiak garatzeko. Eguaztenean elkarteko Martxelo Alvarez Eibarren izan zen, Portalean, ekitaldiaren berri ematen. Aldamenean Casimiro Pérez eibartarra izan zuen, Francoren erregimenaren kontrako borrokan jardundako gizona eta 1970. urtean Eibarren manifestazio batean tiroz hil zuten Roberto Pérez Jauregiren aita.



## “III. Errepublika noiz ailegatuko den ikusteko desiatzen nago”

**- Nola ipini zinen harremanetan Ahaztuak elkartearekin?**

Elkartetik deitu zidaten, gerra eza-gutu zuen jende bila zebiltzaten-eta. Prentsurrekoa eman behar zutela eta gonbidatu egin ninduten. Nik neuk ez nuen gerra zuzenean bizi izan, hasi zenean 12 urte besterik ez nuen, eta amaitu zenerako 15 urte. Hala ere, gerraren ondorioak bizi izatea egokitu zitzaidan. Santoñakoa naiz eta familia guztia sakabanatuta ibili zen, ni amarekin bakarrik geratu nintzen, handik irteteko modurik ez zegoen-eta..

**- Gerraren ondorioak eta Francoren erregimenaren errepresioarenak, Guardia Zibilak manifestazio batean semea tiroz hil zizun-eta. Zer gertatu zen?**

Burgoseko epaiketa zela-eta, manifestazio jendetsua egin zen Eibarren eta semea tartean zegoen. 1970eko abenduaren 3an eta 4an egin ziren manifestazioak. Lehenengo egunean ez zen ezer berezirik gertatu, baina bigarrenegun Guardia Zibila tiroak botatzen hasi zen eta tiro batek semea zauritu zuen gibelean. Ospitalera era-

man zuten, baina ez zegoen zer egirik, pentsatzen dut gertatutakoa eta gero giroa oso bero zegoela eta egun batzutan bizirik aguantatzeko ahalegina egin zutela, baina egun gutxira hil egin zen.

**- Nola bizi zuen herriak horrelako egoera larria?**

Tentsio handiko egunak izan ziren, herria guztiz hartu zuten... jendeak asko lagundu zigun, Eibar herri zoragarria da. Asko sufritu genuen, horrelako zerbait betirako geratzen zaizu barruan, baina aurrera egiten jarraitu behar duzu.

**- Asteburuan II. Errepublika aldarrikatu zela 77 urte beteko dira. Zer esanahi du horrek zuretzat?**

Egun pozgarria da. Eibarren bandera ipintzen nire aitaginarreba ibili

**“Guardia Zibilak semea tiroz hil zigunean, herriak laguntza handia eman zigun. Eibar zoragarria da”**

zen, bera gauzaina, serenoa zen sasoi hartan eta goizaldean, dena gertatu zenean berak partehartze zuzena izan zuen.

**- Ahaztuak elkarteak egindako delaldia zabala da, ez da alderdi batekin edo bestearekin bat egin behar. Zu alderdiren bateko kide zara?**

Sasoi batean gaur egun desagertuta dagoen 'Partido del Trabajo' izeneko alderdian egon nintzen, baina bestela ez naiz alderdi batekoa edo bestekoa izan. Presoen aldeko ekitaldietan parte hartu dut eta ahal dudan neurrian eurei laguntzen ahalegintzen naiz, baina urteetan aurrera noa eta osasunez makalago nago, gero eta zailagoa egiten zait ekitaldietan parte hartzea.

**- Zela aukera ikusten dlozu III. Errepublika bati?**


Ni desiatzen nago, bizitza osoa eman dut horren zain. Gaur eguneko egoera aldatu egin behar da, aldaketaren alde borroka egin behar da eta monarkia kenduta Errepublika ezarri, hori oso positiboa izango litzatekeela uste dut.





J. Etxeberria, 13  
Tfnoa.  
943 700 230

Martxoaz geroztik optika-zentro berria dago Julian Etxeberria kalean: Beitu. SÚSANA, LOREA eta PATRICIAk ikusmenarekin eta entzumenarekin lotura duten patologiaak antzeman eta horientzat konponbiderik egokiena aukeratzen lagunduko dizuete, punta-puntako teknika eta teknologia erabilia. Gainera, eguzkitik babesteko betaurrekoetan aukera zabala aurkitu dezakezue, marka ezagunekin eta merkatuko diseinu berriekin.



“Ikusmena eta entzumena begiratzeko teknologiarik aurreratuena erabiltzen dugu”

**- ZELAKO ZERBITZUA ESKAINTZEN DUZUE KONTSULTETAN?**

Ikusmena eta entzumena doan begirutzen ditugu, horretarako teknologia eta makinari berrienak erabilia. Horri esker, zentzumen bi horietan ager daitekeen edozein gaitz edo arazo antzeman eta horietarako konponbideak eskaintzen ditugu: ikusmenaren graduazioa, begi-barneko tentsioaren neurketa, patologia antzematea... Entzumena begiratzeko, berriz, in-sonorizatutako kabina daukagu.

Audifonoak moldatzeaz gain, entzumena zarartetatik edo uretatik babesteko moldeak ere baditugu, gaitzik izan barik entzumena babestu nahi dutenentzat.

**- PREBENTZIOA AIPATUTA, BEGIA EGUZKI-IZPIETATIK BABESTEARI GERO ETA GARRANTZI HANDIAGOA EMATEN DIOTE, EZTA?**

Oso garrantzitsua da eguzkitarako betaurreko egokiak erabiltzea, izpi ultramoreek kristalinoari min ematen diotelako eta, ondo babestu ezean, denborarekin kataratak sortu daitezkeelako. Gaur egun aukera handia dago arlo horretan: umeentzat bereziki pentsatutako betaurrekoak daude, graduatutakoak, kristal polarizatua dutenak...

**- ZEIN BEREZITASUN DUTE KRISTAL POLARIZATUEK?**

Eguzki-izpiek sortutako islada eta horrelakoak saihesteko filtro bereziari esker, oso egokiak dira gidatzeko, itsaso edo hondartzan ibiltzeko eta, oro har, danerako, begia babesteaz gain ikusmen argiagoa lortzen delako.

**- BETAURREKOAK MODAKO OSAGARRI GARRANTZITSUA BIHURTU DIRA AZKEN ALDIAN...**

Hala da. Optika arloko laborategi ezagunenekin egiten dugu lan eta marka entzutetsuenak daukagu: Oakley, Gucci, Versace, Ray Ban, Prada... Gainera, %15eko deskontua eskaintzen dugu marketan eta ordaintzeko erreztasunak ematen ditugu. Jendeak inolako konpromezu barik eskatu dezake aurrekontua.

% 15eko deskontua markako eguzkitarako betaurrekoetan

69€tik hasita Graduatu zure eguzkitarako betaurrekoak

RPS tramitean / Batareazinezko eskaintza / ± 2 zilindro / ± 4 esfera



# OSASUN

## Dentistak

T. Anitua 16, behea  
Tel. 943 20 73 57

**AMAIA**  
HORTZ KLINIKA

**ARAT** Hortz Klinika

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Hortza, konpainia eta kolektibo handiak  
Itzultzeko zentroa...

943 20 18 51

... 15 urte eibartarren irribarra pizten

**Bista Eder**  
LURRIK DENTÁL • HORTZ KLINIKAK

Bista Eder, 19 - behea  
Tel. 943 70 00 82  
943 20 84 75

- ✓ Inplanteak
- ✓ Ortodontzia
- ✓ Zuritzea
- ✓ Hortz-estetika

grupo innova dental

**Pedro Etxeberria Gisasola**  
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara  
**EGUNERO**

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

**IRAZABAL** Hortz-Klinika

J. Irazabal, J. Etxaniz eta S. Sierra DOKTOREAK  
ZERBITZUAK RPS 04/02

Ortodontzia - Protesiak - Inplanteak  
Hortz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

ABANTAILAK  
- DESKONTU BEREZIAK:  
Mutua eta Aseguruak, enpresak...  
- IMQ

J. Etxeberria, 12 - 1. esk.  
Tel. 943 208552

**BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE**  
DENTISTA

Untzaga 5 - 4. .... 943 70 23 85

**EGUNERO**

## Dentistak

**UNTZAGA**  
hortz-klinika

egunero

Untzaga, 2 - 1. Eskuma  
Tfnoa. 943 70 25 92

## Dietetika

Nutrizio eta Dietetika Zerbitzua

**Nutrieibar**

Aurora Cid

Larregizko pisua eta obesitatea  
Urmeen obesitatea  
Nutrizio-berreziketa  
Dieta pertsonalizatuak

Kontsulta astearte eta ostiralean  
Ordua hartzeko: 647 823 971  
San Agustín, 2-4  
Bategoak 1 Lokala

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**  
ERREHABILITAZIOA

- \* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- \* Logopedia
- \* Inkontinenzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

*Patronato Eibarries*

**Errehabilitazioa eta Fisioterapia**

ZENTRUKO SENDAGILIA: Ibarra doktorea

**Urkizu 9 - behean**  
EGUNERO (08.00 - 19.30)

Tfnoak. - 943 12 12 80 eta 943 12 03 58  
Faxa - 943 12 03 58

## Fisioterapia

- FISIOTERAPIA  
- OSTEOPATIA  
- MASAJE TERAPEUTIKOA

**C.F. Errasti**  
705 Koleg. zkia.

Zuloagatarren, 7  
Tel. 605 71 49 88 / 943 70 15 61

OSKAR LOPEZ DE GUEREÑU  
18 Kolegiatu zbkia.

**FISIOTERAPIA GUEREÑU**

EIBARKO TXIKITO, 12  
BEHEA ESKUMA  
TEL. ETA FAXA:  
943 12 14 80

**FISIOTERAPIA**  
ENEKO MAILAGARAI  
901 kolegiatu zkia.

San Agustín, 2-4 - M lokala  
Tel. 622 14 58 58

**Manu Sánchez** FISIOTERAPEUTA

- fisioterapia
- osteopatia
- errehabilitazioa

Juan Gisasola, 14  
telefonoa: 943 12 70 78

**MUGI FISIOTERAPIA**

Eider Mugica Aristondo  
669 735 925

Egigurentarren, 18

## Kirol medikuntza

**KIROL MEDIKUNTZA**  
**Andartu**


ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- Odol analisiak
- Elektroterapia
- Fisioterapia
- Urgentziak
- Estortzu probak
- 3. adinekoen mantenimendua
- Kontsulta medikoak
- Errekonozimendu medikoak
- Masaje terapeutikoa
- Kirol masajak

ERA GUZTIETAKO MUTUA ETA ASEGURUEKIN KONTZERTATUA

Diputazio 8-10 48260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16

Hemen zure tokia izan nahi baduzu  
deitu 943-206776 telefonora



# GGDA

## Okulistikak

**Oftalmologoak**  
Centro de Oftalmología Avanzada

- Jose Alberdi Alberdi

**OKULISTAK**

EGUNERO ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuareta  
Tfnoa: 943 20 19 82

**Clínica Oftalmológica RECALDE**  
Oftalmologi Klinika

Plaza Barria, 2 - 2º  
Tfnoa: 943 201 844  
www.clinicarrecalde.com

## Ortopedia

**ARRATE OR-  
TOPEDIA**

ORTOPEDIA TEKNIKARI TITULATUA

Oin unitatea ordenagailu bitartez  
Tailer teknikoak  
Kirol medikuntza  
Laguntza teknikoak

Zuloagatarren, 7  
Tel./Faxa: 943 70 06 31  
ortopedia@ortopediarrate.com  
www.ortopediarrate.com  
OSAKIDETZA eta LAGUN AROrekin egiten dugu lan

## Osteopatak

**lasaituz**  
ESPE TERAPIAK

**OSTEOPATIA  
KIROMASAJEA  
REFLEXOLOGIA**

Iñaki Azpitarte  
ebkez ebeko zerbitzua  
**659107023**  
Zezenbide, 1 - behea

## Podologoak

- Kiropodia, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak

**ELENA  
AIZPUN  
PODOLOGOA**  
124 kolegiatu zenbakia

943 12 14 93  
T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 2 - 1.

BIDEBARRIETA 48  
EIBAR  
943 203050

ERDIKO KALE 54  
ARRASATE  
943 799746

**PODOLOGOA**  
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 zenb. kolegiatua)  
Rosarito Rodriguez (125 zenb. kolegiatua)  
Amagoia Zubizarreta (122 zenb. kolegiatua)

**PODOLOGOA**

Maidor  
Lopez  
Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

**PODOLOGO  
T. ORTOPEDICO**

*Iñaki Rivero Zabaleta*

Calbeton, 4 - 2.  
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

## Psikologoak

**Ana Oiarzun**

- PSIKOLOGIA
- SEXOLOGIA
- BITARTEKARITZA LANAK (bikotea, familia...)

Blas Etxebarria 2 - behea  
Telf. 943 20 08 20    Mobil. 635 74 62 50

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

----- (Ume eta helduendako) -----

Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoak

T. Etxebarria 10 - 6. ezk. (EIBAR)    Tel. 943 20 27 15  
Artekalea 30 - 2. B (DURANGO)    Tel. 94 681 90 79

**UME ETA HELDUENDAKO  
PSIKOLOGIA  
KABINETEA**

ARRATE GARITAONANDIA

- ESTRESA
- ANTSIETATEA
- DEPRESIOA
- ERLAJAZIOA
- FOBIAK
- ALZHEIMER-TERAPIA
- IKASTEKO TEKNIKAK
- UMEEN ARAZOAK
- AUTOESTIMA
- MEMORIA LANKETA

AURRERA EDIFIZIOA    943 20 22 66  
Urtzaile 1, 1. Eskuma    646 233 182

Haur eta Helduentzako  
**PSIKOLOGIA - PSIKOTERAPIA**  
RPS: 313/98

Oscar Mondragon Lili  
Yolanda Cuartero  
Mikel Diez Oregi

**ORDUTEGIA:** 10.00 - 12.00  
16.00 - 20.00

Bista Eder 6 - 1. ezk.    943 70 26 62



# Untzaga Errepublikaren kolorez jantziko da

Urteroko moduan, 1931ko apirilaren 14an II. Errepublikaren aldarrikapena egin zela gogoratuko dute askok euren herrietan, baina Eibarren modu berezian gogoratu ohi da efemeridea. Izan ere, estatutu osoan Errepublika aldarrikatzen ausartzen lehenengoak izan ziren eibartarrak eta gure herriak oraindik ere esanahi berezia dauka Errepublikaren koloreak maite ditzutenentzat. Asteburu osorako ekitaldiak antolatuta dituzte, 77. urtemuga gogoan.

Ahaztuak 1936-1977 elkarrekin (estatu kolpea, errepresioa eta frankismoagatik kaltetuen elkarrekin) bihurtu ekitaldia deitu du. 13.00etan Untzagan elkartuko dira, udaletxe parean, 'Gora Errepublika! Gora herri borondatea' lelopean II. Errepublikaren aldarrikapenaren 77. urtemuga gogoratzeko: "Espainiako herrietako bizilagunek demokratikoki gobernu mota bat aukeratu zuten eta hori gogoratu nahi dugu. Gobernu horrek, besteak beste, estatuaren antolaketa demokratikoan eta

eskubide eta askatasunen babesean aurrerapausuak ekarri zituen. Aldi berean, orduan finkatzen ari zen esperientzia demokratikoa, orain arte estatu mailan egon den sakonena, bost urte geroago, 1936ko uztailaren 18ko kolpe faxista eta gero, armen indarkeriaz nola suntsitu zuten gogoratu nahi dugu". Horrekin batera, Euskal Herriko memoria historiko demokratikoa eta antifaxista aldarrikatuko dute.

Deialdia erabat zabala dela azpimarratu nahi izan dute elkarteko ordezkariak: "Iaz lehenengoz egin genuen bezala, deialdia zabala da, jende guztiari irekia eta erabilera politiko



Ahaztuak 1931-1977elkarrekin iaz ospatu zuen lehenengoz Errepublika Eibarren eta bihar ere hala egingo dute.

edo partidistetatik kanpokoa. Gure aldarrikapenarekin bat egiten duen jende guztia ongetorria izango da".



Alderdi sozialistako kideek urtero gogoratu ohi dute Errepublika aldarrikatu zeneko eguna txapligua botata.

## Llamazares eta Madrazo domekan

Ezker Batua-Berdeak taldeak domekan gogoratuko du II.

tzen lehenengo herria izan zelako, 1931ko apirilaren 13an, orain dela 77 urte".

Txaltxa Zelai-Untzaga inguruan burutuko dira ekitaldiak, 11.30etatik aurrera. Ekitaldi politikoan alderdiko ordezkari nagusiek hartuko dute parte: Gaspar Llamazares IU-ko Koordinatzaile nagusiak eta Javier Madrazo EB-Berdeak-eko ko-

## 1931ko apirilaren 14an Errepublika aldarrikatzen lehenak izan ziren eibartarrak

ordinatzaile nagusiak egingo dute berba, Elixabete Gómez zinegotziak aurkeztuta. Jarraian, 12.30etan Untzagan Errepublikaren bandera jasoko dute. Iazko moduan, aurten ere Marcelo Usabiaga arduratuko da horretaz: ordiziarrak jaiotzez baina irundarra adopzioz, 91 urteko Usabiaga PCE Espainiako Alderdi Komunistarekin bat egin zuen 1933an eta Ezker Batua alderdiko bazkide izan da azken 26 urteotan. 1936ko uztailaren 18an militarrek altxatu zirenez geroztik faxisten kontra borrokatu zen, hainbat bataillioirekin, eta 21 urte eman zuen kartzelan. Behin bandera igota, txikiteoa eta herri bazkaria egingo dira.

Bestalde, astelehenean, apirilaren 14an, Eibarko PSE-EEK eguerdian txapliguak botata gogoratuko du II. Errepublika.



Ezker Batua-Berdeak taldekoek domekan egingo dituzte ekitaldi nagusiak. Untzagan bandera igoko dute.



20 urte ez dira hala moduz betetzen; gutxiago, gainera, Deporreko mendi batzordeko ibiltarien urrats guztiak kontatzen hasiko bagina. 252 zeharkaldi egin dituzte urte guzti horietan eta, lehena ospatzeko, hilaren 19an berori errepikatzea pentsatu dute, edozeinendako aukera. Izena eman nahi duenak, astelehen, eguazten eta barixakuak ditu, 19.30etatik 20.30etara, klubetik pasatzeko. Deporren dago, urte guzti horietako argazkiekin osatutako erakusketa ere; baita Euskal Herriko mapa handi bat ere, egindako ibilbideekin.



EIBAR KLUB DEPORTIBOIA

## Deporreko mendizaleak, 20 urte Euskal Herria eta inguruak zeharkatzen

**D**atorren asteko eguaztenean, hilaren 16an, hogeitau urte beteko dira Eibarko Klub Deportiboko mendizaleak orduko ohiturak baztertu eta zeharkaldiak antolatu eta burutzen hasi zirela. Mendi irteeretako zeharkaldi horiek leku batean hasi eta beste nonbaiten amaitzen direnak dira, gehienetan autobusa lagun dutela.

Sasoi hartan, eta zeharkaldiei buruz ezer gutxi idatzita zegoenez, Deporreko taldeko batzuk hasi ziren guztia lantzen: hor sartzen dira pentsatutako lekura joan, apunteak hartuz ibilbidea egin, mapak prestatu, perfilak atera, autobusaren aukerak aztertu... Patxi Arriaga izan zen aitzindaria lan horretan eta berarekin egin zen lehen zeharkaldia, 1988ko apirilaren 16koa.

Belagoatik itsasora zeraman zeharkaldiaren barrukoa zen lehenengo ibilaldi hura, baina apiril hartan Belagua ingurua elurtuta zego-


nez, Orbaizetan hasi eta Ibañeta gainean amaitu zen mendi martxa. Elurragatik egin barik lagatako etapa haiek ekainean egingo ziren, modu horretan hasiera emanez hogeitau urte hauetan Euskal Herriko mendi, haran eta beste bazter asko ezagutzeko aukerari.

Bi hamarkadetan 252 zeharkaldi antolatu ditu Klub Deportiboko mendi batzordeak; horietatik, 206 berriak izan dira eta beste 46ak, arazoi bat edo beste dela medio, errepikatuak. Ibilaldi berrietatik, gehienak taldeko mendizaleak landu dituzte; bakar batzuek izan dira bakarrik egunkari edo aldizkari batean batetik ateratakoak.

Zeharkaldi horiek batzuetan elkar loturik egon dira, horrela ibilbide luzeagoa osatuz: Belagoatik itsasora (10 etapa), Belagoatik Orduñara (17), Lau Hiriburuak (13), Euskadiko travesia (10), Urolako itzulia (5), Deba harana (7)... Gainera, ibilbide guztietako testu eta perfilak bilduta daudenez, hemendik gutxira

argitaratzeko asmoa ere badago mendizale guztiek informazio hori eskura izateko. Lehen ere, zeharkaldi sistema horrek berpiztea ekarri baitzuen mendi taldera.

Urteotan, dena dela, zeharkaldi horiek ez dute Mendi batzordean egindako lan guztia. Hor ditugu beste hamaika ekintza ere: asteburuko irteerak (Pirinioetara, Picosera...), Aste Santukoak, zubiak aprobetxatuz egindakoak, Mendiko Asteak (hitzaldi eta proiektzioak), mendiko eski irteerak, Pirinioetako 3.000 metrotik gorako mendi guztiak egitea klubaren 75. urteurrenean, ikastaroak, bide ferratak... Eta, orain zer? Ba, orain dela hogeitau urteko lehenengo zeharkaldi hura errepikatuko dute apirilaren 19an, zapatuan, ordukoa ospatuz: Orbaizetatik Ibañeta gaineraino joateko aukera polita. Ondoren, ohikoa denez, bazkari edo afari batekin ospatzeko ordua izango da. Nahi duen edozeinek du txangoa egiteko aukera, batez ere urte guzti hauetan ibili direnek.



## Maidar Perales, Espainiako azpitxapeldun bikoitza igeriketan

**U**rkat igeriketa taldeko ordezkari bi izan dira Xixon-go Santa Olaya klubaren instalazioetan jokaturako igeriketako junior mailako Espainiako txapelketetan. 14 urteko Maidar Peralesek ikaragarritzko maila erakutsi du beste behin eta, bizkar erako 50 (30''77) eta 100 metroko (1'05''72) probetan bigarrena izan da; horrez gain, parte hartu zuen

libre erako 50 metroetan ere eta hor 6. postua eskuratu zuen. 16 urteko Markel Alberdik, bestalde, lan ona egin arren, ezin izan zuen Urkat-Urkotronikeko taldekidearen mailara iritsi eta 13.a izan zen 400 metro libreetan, 15.a era bereko 100ekoan eta 16.a 200 metroetan. Euskadiko txapelketan ere zelan ibili ziren ikusita, etorkizun oparoa aurreikusten zaie bie.

## Balentziaga Memoriala Beldaren semearendako

**V**icente Belda txirindulari handiaren semeak, Davidek, irabazi zuen domekan Balentziaga Memorialaren aurtengo edizioa. Lau ordu eta minutu eta erdi behar izan zituen 163 kilome-



troak betetzeko, batez beste orduko 40 kilometro eta erdiko abiaduran. Zortzi txirrin-


dulari helmugaratu ziren batera eta euren arteko esprintean nagusitu zen Fuerteventura taldekoa. Une erabakigarria San Miguel gainean izan zen, hor osatu baitzen Eibarrrerino heldu zen taldetxoa. 82 txirindularik amaitu zuten proba eta beste 106 erretiratu ziren. Bestelako sailkapenei dagokienez, mendikoa Jose Antonio Bañosek bereganatu zuen, tarteko helmugena Ugaitz Artolak eta lehenengo euskalduna Ismael Esteban izan zen, etapako 3. sailkatua.

## Gauzak estutzen Gipuzkoako hiru txirilo txapelketan

**A**urreko asteburuan Angel Ibarluzeak eskuratutako aldea murriztea lortu dute hainbat bolarik San Pedron jokaturako Gipuzkoako XXXIX. edizioko hiru txirilo txapelketaren bigarren jardunaldian. Horrela, Asola Berriko Ganix Rodríguezek sailkapeneko 2. postura egin du jautzia, San Pedron San Migueleko Jabier Osororekin lehenengo postuan berdindu eta gero. Aipaturako biek zazpi txirilo botatzea lortzen zuten

bitartean, jarraian sailkatutako guztiek ez ziren bostetik pasatu (tartean, Asola Berriko Jose M<sup>º</sup> Larreategi).

Sailkapen nagusian Angel Ibarluzeak (San Miguel) agintzen du egun, 11 txirilorekin, eta atzetik ditu Ganix Rodríguez (10) eta Juan Luis Rodríguez (9), biak ere Eibar-ko Asola Berrikoak. Taldekako liderra Asola Berri B da; bikoteka, Sergio eta Juan Luis Rodríguezek agintzen dute; nagusietan Juan Luis Rodríguezek; eta emakumezko-



tan, Olaitz Rodríguezek. Lehendakari Sarian Ganix Rodríguez dago 1. postuan eta jubenil onena Julen Ibarluzea da orain arte. Hurrengo jaurtialdia Elgoibarko San Andresen jokatu da, bihar arratsaldeko 17.00etan.

## Ipuruako gimnastak bikain kiroldegiko zapatuko kontrolean

**E**skola Adineko Espainiako Txapelketarako baliagarria zen kontrola jokatzen Ipuruan zapatuan eta hor Garazi Pablogorranek 1. postua lortu zuen bost aparatuetan; hori dela-eta, Eibarko



Helena Jauregik senior mailako 4. postua eskuratu zuen Ipuruan.

gimnastak sokarekin, mazekin eta zintarekin parte hartuko du Murtziako Torre Pachecoan jokatuko den txapelketan. Maider Jiménezek ere sailkatzea lortu zuen, eta aroarekin eta zintarekin jardungo du. Modu horretan, selekzio autonomiko bakoitzak egin ditzakeen hamar ariketetatik, Ipuruak bostetan hartuko du parte. Erreginaren Kopari dagokionez, Garazi Pablogorranek hiru probetan jardungo du eta Ipurua izan zen jardunaldi horretan bere gimnasta guztiak aparatu bakoitzeko domina bat irabaztea lortu zuen talde bakarra.

Seniorretan, Garazi Pablogorranek irabazitako proban, Helena Jauregik 4. postuan amaitu zuen eta Maider Jiménezek 13.ean. Juniorretan, Olatz Ibaibarriaga 8.a izan zen eta Olatz Laskurain 9.a. Eta infantiletan, Onintze Pablogorran bigarrena izan zen.

## Eibar Foball Taldea solidaritatean ere nagusi

**M**artxan dago honezkero hainbat klubetako jokalariek Elikadura Egunean jantzi zituzten kamiseten programa, urrian Foball Profesionalen Ligaren Fundazioak gosearen aurkako mikroproiektuen aldeko ekintzarekin hasi zirenetik. 1. eta 2. mailako klub bakoitzari mikroproiektua eskaini zitzaion, kostu jakina eta sms kode banarekin. Eibar KEren kasuan, Afrikako Lesothon fruitu eta barazki eskola ortu bat eratzea dute helburutzat. Eibar KE 42 taldeko ranking horretako 20. postuan geratu da eta, taldeek ordezkatzeko dituzten biztanle kopuruari begira, postu horretan geratzea arrakasta izugarritzat hartu dezakegu. Orain, ebay-n lehiatu daiteke kamiseta horiek lortzeko.

## Autogidarien asteburu bikaina

**H**amahiru tramo, intentsitate eta zailtasun handikoak, gainditu eta gero, eta bigarrenrei segundo biko aldea kenduz, nagusitu ziren Camargo Bailarako Klasi-koen III. Rallyan. German González eta Iban Beroizek halako lasterketei neurria hartu dietela erakutsi zuten oraingoan ere eta, maila horretako proba bi jokatura, Escuderia Eibarko

ordezkariak Eskuderiaren Kopako sailkapen orokorraren gorenean daude.

Slalometako Euskal Txapelketan, bestalde, Imanol Lakar Escuderia Eibarko ordezkari bakarrak garaipen garrantzitsua eskuratu zuen, bere Speed car monoplazarekin, eta bigarrenari lau segundoko aldea atera zion. Emaizta horrekin, Lakar Txapelketako 4. postuan kokatzen da.



Iban Beroizek eta German Gonzálezek osatzen duten taldeak garaipen garrantzitsua lortu zuen Camargon.

## Hierros Anetxeok ezin izan zuten promozioa gainditu

**E**ibar Rugby Taldeak ezin izan zion Unben lortutako 8 puntuko aldeari eutsi eta, L'Hospitaleten 21-6 galduz, aurtengo denboraldiko igotzeko asmoei agur esan zien. Partidua irabazten hasi bazuten



ere, eibartarrek gero ezin izan zioten kataluniarren jokoari aurre egin eta, batez ere, Iñaki Laskurainen mutilen egindako hutsei "esker" bide erdian geratu zen gure herriko lehen taldea. Enmanuelek lortutako zigor transformazioak ez ziren nahikoa izan, normala denez; hala ere, partidua amaitzeko

bost minuturen faltan, entsaioa lortzeko aukera paregabe bi izan zituen Hierros Anetxek, baina hor ere ezin asmatu eta datorren denboraldirako laga beharko dute eibartarrek Oho-rezko B Mailara igotzeko itxaropena. Partidu horrekin, denboraldia amaitu da honezkero eibartarrentzat.


## Eibarko xakelariak lidergoan

**Z**arautz B-ren aurka, Deporren 2'5-1'5 irabaziz, Eibar A taldea sailkapeneko lidergoan dago 27,5 punturekin, bigarrenari puntu bi eta erdi ateraz. Jardunaldi bakarra falta zaie eibartarrei liga amaitzeko eta neurraketa hori Fortuna B-ko donostiarren aurka jokatu beharko dute. 2.

mailarako igoera fasean, bestalde, gauzak ez ziren hain ondo joan eta Mundarro B-rekin binako berdinketa besterik ezin izan zuten lortu Eibar B-ko jokalariek. Orain sailkapeneko 2.ak dira, aurkari izan zuten Mundarrokekin berdinduta, eta bost talde dira lehia bizian igoerako hiru postuak lortzeko.

## Arratek Antequera hartuko du bihar arratsaldean

**L**eonon jokaturako azken bost minutuak ez zuten eibartarren garaipena ahalbidetu bertako Ademarraren aurrean, baina ordura arte egindako partiduak erakutsi zuen, beste behin, Arrateren plantilak denboraldi honetan duen maila. Oraingoan, bere atzetik -hainbat puntura bada ere- duen Antequera izango da bisitari Ipurua kiroldegian biharko partiduan, arratsaldeko 19.00etan hasita. Eibartarrek dira faborito, baina kontuz ibili daitezke, urrutirago joan barik ere, iaz Andaluziako taldea nagusitu baitzen kiroldegiko kantuan.



Ivo Díazek, talde handienetan egon eta gero, Arraten amaituko du bere ibilbidea.

### Ivo Díaz beste urte birako

Kubako eskubaloilariak beste urte birako kontratua sinatu du Arraterekin eta, 36 urte baditu ere, denboraldi honetako bigarren itzulian erakutsitako jokoak Arratek jarraitzeko eskaintza egitea ekarri dio. Kontratu berritze hau hiruga-


rena da, Vucinic-ena eta Caturarenaren ondokoa, eta hurrengo denboraldirako plantila ere ia osatuta dago. Aldaketa gutxi izango dira taldean, ia beste jokalaria guztiak kontratua indarrean dutelako; Javier Arroyorekin taldea hasi da hitz egiten eta Carou pibota izango da baja bakarra.

## Karmona-Agirrebeña Udaberriko Torneoaren finalean

**L**azkaoko frontoian 22-19 irabaziz, Eibarko Klub Deportiboko bikotea domekan Bergaran jokaturako den Udaberri Torneoko finalean izango da Astigarragako ordezkariak aurre egiten. Torneo bereko beste finalerdi batean, Zubizarreta-Unamunzaga gure herriko ordezkariak 20-22 galdutuz Andoaingo Aizpuru-Etxeberriaren aurka, ezus-

teko emaitza partidua zelan joan zen ikusita (eibartarrek 15-7 irabazten joan zirelako).

GRAVN Torneoan Gipuzkoa ordezkatzeko duen Jon Bengoetxea eibartarrek, bestalde, domekan, goizeko 11.00etan, Iruñeako Labrit frontoian Armentariz nafarraren aurka jokaturako du. Bihar, bestalde, Deba Arroko torneooko partidu bi hartuko ditu Armeria Eskolako frontoiak. 11.30etan hasiko den jaialdian, Eibar eta Aretxabaletako ordezkarien arteko jubentzen partidua jokaturako da eta, jarraian, eibartarren eta elgetarren arteko senior mailan.



## Bilboko txistulariak eta Alos Quartet

**B**ihar, zapatua, 20.30etatik aurrera Coliseoan kontzertua eskainiko dute Bilboko Udal Txistulari Banda eta Alos Quartet-ek elkarrekin. Bilboko Txistulari Banda profesionalak osatzen dute eta horrek berezia egiten du. Bandako lau txistularik soka-instrumentuen laukotea, hau da, Alos Quartet taldeko musikariak izango dituzte aldamen-an, kontzertu benetan bakar eta berezia eskaintzeko.



Txistulari Banda musika munduan eskarmentu handia duten bost gaztek osatzen dute: Garikoitz Mendizabal (zuzendaria), Gorka Zabaleta, Sabin Bikandi, Idoia Kareaga eta Asier Garciak. Alos Quartet taldea, berriz, 1999. urtean sortu zen eta esperientzia handia dute musika klasiko zein garai-kideko emanaldietan eta Oskorri, Benito Lertxundi eta Kepa Junkera moduko musikariek lan egin ohi dute. Xabier Zeberio eta Francisco Herrero (biolina), Lorena Núñez (biola)

eta Pello Ramírezek osatzen dute laukotea.

### Programa

Biharko egitaraua honako piezek osatzen dute: 'Habanera' (Ruper Lekue), 'Mongono' (Xabier Zeberio), 'Kulunka' (Javier Ituarte), 'Elorri Orri' (Aitor Furundarena), 'Sinkroniak' (Juan Carlos Pérez), 'Erosta' (Motel), 'Solasean' (Adaggio), 'Itsasoaren mintzaira' (Presto), 'Impromptu' (Hilario Extremiana) eta 'Bat, bi, hiru' (Alvaro García). Emanaldirako sarrerak euro bi balio du.



EKHI BELAR



## Opera emanaldia gaur Coliseoan

**A**tzo Coliseo antzokian eskainitako 'La Traviata' operaren bigarren emanaldia eskainiko du gaur iluntzean, 20.30etan Nueva Lí-

rica taldeak. Verdiren lan eza-gunak Violeta eta Alfredoren arteko maitasun istorioa du ardatz. Pertsonaia nagusi bi horiek Helena Gallardo eta An-

doni Barañano opera abeslari-riek antzetzuko dituzte eta, eurei laguntzen, goi mailako beste ahots ezagun asko izango dira. Oso lan arrakastatsua da eta munduko antzokirik garrantzitsuenetan eskaini dute opera munduko abeslari ga-

## Laburrak

### JUBILATUENTZAT ZINEA

Amaña Kultur Aretoak jubilatuentzat zine-emanaldia eskainiko du apirilaren 19an, 17.00etatik aurrera. Pablo Carbonell eta Anabel Alonsoren 'Atasco en la nacional' pelikula ikustera joateko sarrerak doan jaso daitezke Kutxa-ko edozein bulegotan eta sartu ahal izateko ezinbestekoa izango da txartela aurkeztea. Amaieran piskolabisa emango dute.

### TXISTULARIEN KALEJIRA

Domekan, 11.00etatik aurrera, Usartza Txistulari Banda kalejira egingo du hainbat pieza eskaintzen. Txistulariak Urkizu aldean ibiliko dira.

### TERNUARI BURUZKO HITZALDIA

Kutxaren eskutik Ternuari buruzko hitzaldia egingo da martitzenean, Hezkuntza Esparruan (Ingeniaritza Eskolan) 11.00ak eta 13.00ak bitartean. Hitzaldiaren izenburua 'Bitácora de Terranova: de los balleneros guipuzcoanos a los bacaladeros del siglo XX' da eta gatzeleraz emango dute. Sarrera librea da.

### GAZTETAN UDABERRIAN

Programa horren barruan egiten diren irteeretan parte hartu nahi dutenek domekarako eman beharko dute izena Errota Gaztelekuan (Karmen, 3), 17.00etatik 20.00etara edo, bestela, 943206231 Astixako telefono zenbakian

rantzitsuenek. Sarrera gehienak aurre salmentan saldu dira, baina sarrera oraindik erosi ez dutenek horretarako aukera izango dute ikuskizuna hasi baino ordubete lehenago, Coliseoko leihatilan. Sarrerak 20 euro balio du.

**AKONDIA**

Albaitari Zentroa

Julen Arano / M<sup>o</sup> Jesus Blanco

Bitto Sarasketa, 12

☎ 943 12 74 15

**MUGICA** iturgintza

- GASA ETA ITURGINTZA
- ALTZARI ETA OSAGARRIAK
- BAINUONTZIAK eta HIDROMASAJERAKO KABINAK
- HANSGROHE GRIFERIA
- AIRE EGOKITUA
- ZORU ERRADIATZAILEA

teuco

hansgrohe

San Juan 15 - behea

Tfnoa. 943 201 030 / Faxa. 943 207 224

**LORADENDA**

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 ☎ 943 20 33 29 EIBAR





**NEURE BURUA NIK NEUK  
GIDATZEKO PREST!**



[WWW.MONDRAGON.EDU/PREST](http://WWW.MONDRAGON.EDU/PREST)

**PREST**



**MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA**

**2008**  
Berrikuntza urtea  
enkhadi  
año de la Innovación

## Arrikruzera txangoa Kulturekin


**A**rrate Kultur Elkartek apirilaren 19rako txangoa antolatu du Arrikruzera (Oñati). Arantzazuko Santutegiaren inguruan dauden kobazuloak iaz zabaldu zituzten, lau urtez itxita egon eta gero. Antolatzaileen berbetan, "Iur azpian espeleologia fenomeno, gune konplexuak eta kareharri ikusgarriak ezagutzeko aukera izango da, bisita gidatua. 20 laguneko talde bitan egingo dira ordu-bete inguruko iraupena izango duten bisitak eta, beraz, gehienez 40 lagunek eman ahal izango dute izena. Bisita

*egiteko oinetako egokiak eta hotzari aurre egiteko jantziak eraman beharko dira eta argibideak euskeraz eta gazteleraz emango dituzte".*

### Golzeko 09.00etan

Txangoaren berri ematen duten karteletan nahastu eta irteera ordua txarto agertzen da: txangoa 09.00etan (eta ez 09.30etan) abiatuko da Ego-gainetik. Izan ere, hango kobazuloak ezagutzeko bisita gidaturako hitzordua lotuta dago eta bestela taldea ez da garaiz ailegatuko bisitara.

Kobazuloetatik irten eta han




**Lau urtez itxita egon eta gero, berriro zabaldu dituzte Arantzazu inguruko kobazuloak**

inguruko jatetxe batean bazkalduko du taldeak, ondoren Oñatira jaisteko; herria eta hango unibertsitatea ezagutzeko aukera izango da. Txangorako izena emateko edo argibide gehiago jasotzeko Arrate Kultur Elkarteko bulegora jo

daiteke, eguenetan 18.30etatik 20.30etara edo, bestela, 943202299 edo 626984472 telefono zenbakira deitu. Txangoaren prezioa 30 eurokoa izango da (27 euro bazkideentzat) bidaia, bazkaria, sarrera eta bisita barne.

## Paulino Larrañagari eskainitako katalogoa



**U**daleko Euskera-Kultura batzordeak 'Paulino Larrañaga. Arte Ederretako bihargiña' liburu-katalogoa argitaratu du. Lana datorren astean, eguaztenean aurkeztuko da Portaleko areto nagusian, 19.00etatik aurrera, Paulinok 90 urteak bete berri dituela. Lanaren oinarria 2007ko urrian Portalean artistak egindako erakusketak osatzen du eta bere lanak erabilitako teknikaren eta gaiaren arabera sailkatu dituzte. Artistak bere lanetan erabilitako gai nagusiak langileak, arrantzaileak, pelota, erlijioa eta musika dira.

### Argazki ugari

Lanaren koordinazioa Jose Valdeyrey argazkilarik egin du. Lanak

dauzkan 96 orrietan Jesus Mari Gisa-sola 'Trunboi'k Paulinori eskainitako bertsoa, Iñaki Arriola alkatearen, Asun Gamarra iazko urrian egindako erakusketaren arduradunaren eta Juan Serrano Eibarko Artisten Elkartearen presidentearen aurkezpenak, ...eta kitto! astekarian artistari buruz kaleratutako erreportajearen moldaketa eta hainbat lan batu dituzte.

Horiez gain, Paulinoren estudio-lantegian iaz egindako argazkiak jasotuzte liburuan (artistaren lanari, erabilitako erremintei eta ikasleei ateratakoak) eta artistaren bildumako eta prentsa-artxibategietako irudien aukeraketa batekin osatu dute argazkiei eskainitako tarte hori. Liburua 10 eurotan salduko dute.

## Zirkoa eta txotxongiloak Portalean



**A**pirilaren 20ra arte zirko eta txotxongiloekin gozatzeko aukera pargabea eskainiko du Corrado Massaci-ren erakusketak Portalean. 1982az geroztik Euskal Herrian bizi den italiarrak erakusten dituen txotxongilo gehienak berak egiten ditu eta egunotan Eibarren ikusgai dagoen erakusketa herririk herri dabil 2003az geroztik. Txotxongiloak zirkuaren munduko pertsonaia ezagunetan oinarritutakoak dira: pailazoak, animaliak, trapezista, pizti-hezitzailea... Aldez aurretik eskatuz gero, ikastetxeetarako bisita gidatuak eskainiko dituzte. Bestela, erakus-



keta ohiko ordutegian egongo da zabalik: martitzenetik domekara, 18.30etatik 20.30etara.



## Olerki emanaldia martitzenean

**Antzerki Maltaleak** taldea osatzen duten Ernesto Barrutia, Maite Lorenzo eta Eduardo Falces aktoreek olerki emanaldia eskainiko dute martitzenean, apirilaren 15ean, Portalean. Góngora, Quevedo, Bécquer, García Lorca, Miguel Hernández eta Mario Benedettiren testuetan oinarritutako ikuskizuna izango da.

## Collageak Topalekuan



**Mercé Martínezen artelanak domekara arte ikusteko aukera egongo da Topalekuan, ohiko ordutegian:** gaur 19.00etatik 21.00etara eta bihar eta etzi, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.30etatik 21.00etara. Artista honek 'collage' teknika erabilia, naturatik hartutako elementuak eta maskarak nahastearen ondorioz sortutako koadro ikusgarriak ipini ditu ikusgai Arrate Kultur Elkarteko erakusketa aretoan.



## Artisten Elkartearen erakusketa

**Apirilaren 20ra arte egongo da zabalik Portalean Elbarko Artisten Elkartearen erakusketa,** ohiko ordutegian: martitzenetik domekara, 18.30etatik 20.30etara. Erakusketan orotariko lanak daude ikusgai, elkarteko kideek egindakoak.

*Kutxa Gizarte Ekintzak antolaturiko ekimen baten bitartez antzinako zazpi mirariei buruzko hitzaldi bi egin ziren martitzenean eta atzo Hezkuntza Esparruan. Irungo Oiasso Museoko Maria Jose Noain arkeologoa izan zen Egiptoko piramide, Alejandriako itsasargi eta beste mirarien gainean aritu zena.*



## MARIA JOSE NOAIN, ARKEOLOGOA: "Gizako piramideek liluratzen naute gehien"

**- Nola egin zen antzinako zazpi mirarien aukeraketa?**

Hainbat autore klasikok aukeratu zituzten antzinako zazpi mirariak, hau da, mirari horiek egin zirenean autore garaikideak zirenek. Herodotoren (historiaren aita bezala ezagutzen den idazle greziarra) aipamen batzuk aurki daitezke, baina zerrenda K.a. III. mendeko Bizanzioko Filonek batzen du batez ere. Autore hau hidraulika eta ingeniartzako asmatzuzen batzuen egilea da, baina mirarien inguruan testu labur bat idatzi zuen. Erdi Aroan aurretik zeuden mirarietako batzuk aldatu egin ziren, lehen Babiloniako hesia zegoelako eta lorategi esekiek hartu ziotelako lekua. Azkenik, berpizkundetik aurrera zerrenda modan jarri zen. Zerrenda egin zuten idazleen aukeraketa pertsonala izan zen dena, ospe handiena zuten eraikuntzak aukeratuz, euren ikuspegitik ikusgarrienak eta arkitektonikoki ederrenak zirenak hautatuz.

**- Gizako piramideak dira zutik jarraitzen duten bakarrik. Zer gertatu zitzaizkion besteak?**

Bakoitzak bere historia bizi izan zuen. Batzuk lurrikaren ondorioz erori ziren, mugimendu sismikoko ohikoak diren zonaldeetan zeudelako. Beste batzuk, guda garaian hartuak izan ziren edo bota egin zituzten. Kasu bereziena Efeson zegoen Artemisaren tenpluarena da; izan ere, Erostrato izeneko piromano batek nahita eman zion sua. Berak famatua izan nahi zuen eta bere izena historiara pasa zedila. Tamalez, bere nahi hori bete egin zen.

**- Zela da zazpletatik lilura gehien igortzen dizuna?**

Nik eta gaur egun edonork ezagutu ditzakeen bakarrik Gizako piramideak dira; beraz, horiek izan daitezke liluragarrienak. Besteak existitu balira ere, uste dut piramide horiek izango liratekeela nire gustokoena. Hala ere, ikusmira gehien pizten dizkidatenak, ezin ditudalako buruan irudikatu nola izan zitezkeen, Babiloniako lorategi esekiak dira. Exotikoenak eta urrutien daudenak direlako harrizten naute hainbeste eta, gainera, ezin dudalako euren egitura arkitektonikoa imajinatu, ez dakidalako nola zeuden lorak kokatuta eta landatuta lorategiek esekitako itxura har zezaten.

**- Iaz beste zazpi mirari berri aukeratu ziren. Oinordeko duinak dira?**

Asmakizun mediatikoa izan zen. Bestalde, ekimen kurioso bat iruditzen zait, interesgarria eta bertan agertzen diren mirari askoren izendapenarekin guztiz ados nago. Hala ere, gertaera moduan ez da gauza handirik. Adibidez, Rio de Janeiroko Kristoak proposatua izatea ere merezi ez zuela uste dut, ezin baita Machu Picchu, Petra edo Chichen Itza-rekin alderatu, adibidez. Nire iritziz ez dauka, ez balore historiko garrantzitsurik, ez balore artistiko garrantzitsurik.

**- Euskal Herrian eginez gero, zeintzuk izango lirateke zazpi mirariak?**

Zaila da esatea. Printzipioz, bi izendatuko nituzke: Ekaineko eta Santimamiñeko kobazuloak.



**telefono jakingarriak**

SOS deiak..... 112  
 Pegora .....010  
 Udaletxea .....943 70 84 00  
 Portalea .....943 70 84 39  
 Udaltzaingoa.....943 20 15 25  
 Mankomunitatea....943 70 07 99  
 Debegesa .....943 82 01 10  
 KIUB .....943 20 38 43  
 Epaitegia .....943 03 34 00  
 Iberdrola.....901 20 20 20  
 Naturgas.....902 12 34 56  
 DYA Larrialdiak...943 46 46 22  
 Gurutze Gorria....943 22 22 22  
 Mendaro osp.....943 03 28 00  
 Anbulategia.....943 03 25 00  
 Torrekua .....943 03 26 50  
 Errepideak.....902 11 20 88  
 Ertzaintza .....943 53 17 00  
 Eusko Tren.....902 54 32 10  
 Pesa.....902 10 12 10  
 Taxiak .....943 20 30 71  
 .....943 20 13 25  
 Alkoholiko Anonimoak ..... 629 14 18 74

**autobus ordutegiak**

EIBAR-DONOSTIA. Egutegia: 07.00, 08.50, 10.30, 13.30 eta 18.30. Laneguna: 08.00, 15.30, eta 20.30. Jaieguna: 09.30 eta 20.30. DONOSTIA-EIBAR. Egutegia: 12.30, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30 eta 13.30. EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.40etatik 20.40etara ordu. Zapata eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. Zapata eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. EIBAR-GASTEIZ. Egutegia: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapata: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. GASTEIZ-EIBAR. Egutegia: 08.30, 12.30, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.30 eta 20.30. EIBAR-IRUÑA. Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaieguna: 07.30 eta 18.00. IRUÑA-EIBAR. Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. EIBAR-ARRATE. Zapata: 14.15. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. ARRATE-EIBAR. Zapata: 14.45. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. EIBAR-ELGETA. Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. ELGETA-EIBAR. Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.30 eta 19.30. ERMUA-MENDARO. Astelehenerik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdiko). Zapata-Domeka-Jaieguna: 06.50-etik 21.50-era ordu. MENDARO-ERMUA. Laneguna: 06.55etatik 21.55-era orduerdiko. Zapata-Domeka-Jaieguna: 07.55-etik 21.55-era ordu.

**tren ordutegiak**

EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.13etatik 21.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. BILBO-EIBAR. Laneguna: 05.57etatik 20.57etara ordu. + 09.34 eta 20.18. EIBAR-DURANGO. Egutegia: + 22.18. EIBAR-DONOSTIA. Laneguna: 06.13etatik 20.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. DONOSTIA-EIBAR-ERMUA. Laneguna: 05.47etatik 20.47etara ordu.

**eguraldia**

*Euskal Meteorologia Agentziatik*

**ZAPARRADAK NOIZEAN BEHIN**

ZAPATUAN hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira eta noizbehinka zaparradak botako ditu. Temperatura igo egingo da eta beroenak 15-17 °C bitartean geratuko dira. **DOMEKA tenperaturak behera** egingo du eta zaparradak botako ditu.

**11 barixakua**

**ANTZERKIA**

19.00.- 'Sabina y las brujas' (La Salle ikastetxeko 16/17 urteko ikasleak). Hezkuntza Esparruan.

**OPERA**

20.30.- 'La Traviata', Nueva Lírica konpainiarekin. 20 euro. Coliseoan.

**12 zapatua**

**URTEKO BATZARRA**

13.00.- Deparkel elkartearen urteko batzarra. Casinoko Artista Eibarres-ean (Eibarko Bizikleta Plazan). Bazkaria Azitan erretegian.

**KALEETAN KANTUZ**

19.00.- Kaleetan Kantuz-en irteera.

**KONTZERTUA**

20.30.- 'Bilboko Udaltxistulari Banda & Alos Quartet'. Sarrera: euro 2. Coliseo antzokian.

**13 domeka**

**KALEJIRA**

11.00.- Usartza Txistulari Bandaren kalejira. Urkizu.

**II. ERREPUBLIKA**

11.30.- Ekitaldi politikoa: Gaspar Llamazares, Javier Madrazo, Elixabete Gomez. 12.30.- Bandera igotzea. 13.00.- Txikiteoa. 14.30.- Herri-bazkaria. Musika eta umeentzako jokoak. Txaltxa Zelai-Untzagan.

**14 astelehena**

**IKASTEN**

16.00/19.00.- Kontserba eta mermeladak artisau eran egiten ikasteko ikastaroa. Portalean.

**GURASOEN MARTXAN**

18.00.- Bizitzarako trebetasunak ikastaroa, 12-16 urteko nerabeen gurasoentzat. Portalean.

**15 martitzena**

**IKASTEN**

09.30.- 'Visiones del hombre' (confucionismo, hinduismo, islamismo, cristianismo, Platón, Marx, Freud, Sartre, Skinner...). Hezkuntza Esparruan.

**MAHAINGURUA**

11.00.- 'Bai industriari!' mahaingurua. Debegesan.

**HITZALDIA**

11.00.- 'Bitácora de Terranova: de los balleneros guipuzcoanos a los bacaladeros del siglo XX'. Sarrera libre. Hezkuntza Esparruan (EUITI).

**GURASOEN MARTXAN**

18.30.- 'Gaur egungo nerabeak'. Mogel Isasi BHI.

**OLERKI EMANALDIA**

19.00.- Góngora, Quevedo, Bécquer, F. García Lorca, M. Hernández eta Mario Benedettiren testuak. Antzerki Maitaleak (Ernesto Barrutia, Maite Lorenzo eta Eduardo Falces). Portalean.

**EIBAR ZINE KLUBA**

21.30.- 'Borrachera de poder' (Claude Chabrol). Sarrera: 3'50. Coliseoan.

**erakusketak**

**Apirilaren 20era arte**

Eibarko Artista Elkartearen erakusketa. **Portalean.**

Corrado Masacci-ren 'Zirkoa eta txotxongiloak' erakusketa. **Portalean.**

Mercé Martínez-en "Collagea". **Topalekuan.**

**Apirila amaiera arte**

'20 urte EH zeharkatzen'. Deporreko mendi taldea 1988-2008. **Deporreko tabernan.**

'Aratosteak 2008'. Deporreko Argazkilaritza Taldea. **Ambigú eta Portalea tabernetan.**

**16 eguaztena**

**MAGIA**

18.00.- Magia eta umore ikuskizuna, familiendako, Angel Magoarekin. Sarrera libre. CANen (Errebal, 22).

**LIBURU AURKEZPENA**

19.00.- 'Paulino Larrañaga. Arte Ederretako bihar-giña' liburuaren aurkezpena. Portalean.

**17 eguena**

**IKASTEN**

09.30.- 'Visiones del hombre' (confucionismo, hinduismo, islamismo, cristianismo, Platón, Marx, Freud, Sartre, Skinner...). Hezkuntza Esparruan.

**IKASTEN**

16.00 eta 19.00.- Kontserba eta mermeladak artisau eran egiten ikasteko ikastaroa. Portalean.

**GURASOAK MARTXAN**

18.00.- Bizitzarako trebetasunak ikastaroa, 12-16 urteko nerabeen gurasoentzat. Portalean.

**EGO IBAR ZINE KLUBA**

17.30 eta 21.00.- 'La boda de Tuya' (Wang Quan'an). Sarrera: euro 2. Hezkuntza Esparruan.

**diru-laguntzak**

**UEUko matrikularako**  
 Zenbatekoa: Matrikularen erdia.  
 Epea: **Maiatzaren 30era arte.**  
 Non: Pegoran.

**bestelakoak**

**Udalekuak 2008**  
 Izena-emateko epea: **apirilaren 17tik 25era** (14-17 urte bitarteko umeak).  
 Informazioa: www.gipuzkoa.net/oporraldi edo Gazte Informazio Bulegoan (Portalean).



## ikastaroak

**Gurasoak Martxan**  
'Curso de habilidades para la vida', Hilario Garrudo psikologoarekin.  
Norentzat: 12-16 urteko seme-alabak dituzten guraso edo arduradunentzat.  
Noiz: **Apirilak 17 eta 24 eta maiatzak 6**, 18.00etan Portalean.  
Matrikula: Doan. Pegoran.  
Epea: **Apirilak 11.**

**Kzguneko mintegiak**  
Sinadura elektronikoa  
Noiz: **apirilak 15** (11-12); **apirilak 25** (18-19) eta **apirilak 30** (11-12).  
**Banka elektronikoa**  
Noiz: **apirilak 23 eta 24** (18-20).  
**Berehalako mezularitza** (messenger)  
Noiz: **apirilak 28** (09-11).  
Non: Karmen kaleko KZgunean.


## lehiaketak

**Sanjuanak 2008**  
**Eibarren kartel lehiaketa**  
Epea: **Maiatzaren 16ra arte**.  
Informazioa:  
Pegora eta Portalean.


**Alkohol larregi edatearen kontrako pegatina lehiaketa**  
Epea: **Maiatzaren 16ra arte**.  
Informazioa:  
Pegora eta Portalean.

**Eskola Agenda 08-09 azala diseinatze lehiaketa**  
Epea: **Maiatzaren 16ra arte**.  
Informazioa:  
Pegora eta Portalean.

## denborapasak



Aurkitu hemen 15 BASERRI-TRESNA



Aurrekoaren SOLUZIOA

## farmaziak

- 11. barixakua**  
GOIZEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- 12. zapatua**  
GOIZEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)  
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- 13. domeka**  
GOIZEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)  
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- 14. astelehena**  
GOIZEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 15. martitzena**  
GOIZEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 16. eguaztena**  
GOIZEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- 17. eguena**  
GOIZEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- 18. barixakua**  
GOIZEZ **Las Heras** (Sostoaarren, 20)  
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

## hildakoak

- Edelmira Lameiras Vázquez. 98 urte. 2008-III-29.
- Juana San Martin Alberdi. 84 urte. 2008-IV-2.
- Marcelina Salvador Pérez. 89 urte. 2008-IV-4.
- Jesus Blas García. 76 urte. 2008-IV-9.

## jaiotakoak

- Izaro Rial Garagarza. 2008-IV-3.
- Elene Arrazola Amiano. 2008-IV-5.

## santerak salgai

**OPERA**  
'La Traviata'.  
**Apirilak 10 eta 11**, 20.30.

**MUSIKA**  
Bilboko Txistulari Banda.  
**Apirilak 12**, 20.00.

**ANTZERKIA**  
'Inalanbrikak'.  
**Apirilak 19**, 18.00.

**ZINEA**  
'Borrachera de poder'  
(jatorrizko bertsioa).  
**Apirilak 15**, 21.30.

'Tener y no tener'  
(jatorrizko bertsioa).  
**Apirilak 22**, 21.30.

## laster salgai

**ZINEA**  
'Tener y no tener'.  
**Apirilak 22**, 21.30.

**DOKUMENTALA**  
'Tierra' (BBC).  
**Apirilak 29**, 21.30.

## zinemazinemazinemazinema



### untzaga

"Las hermanas Bolena"

ZUZENDARIA:  
*Justin Chadwick*  
AKTOREAK:  
*Natalie Portman, David Morrissey, Scalett Johansson, Eric Bana...*

Ana eta Maria Bolena ahizpak gizon berdina dute helburu: Enrique Villa erregea. Bolena familiako helburuak lortzeko asmoarekin, ahizpa bien arteko lehia bizia sortuko da. Bietako batek erregina izatea lortuko du...



### ego-ibar

"La boda de Tuya"

ZUZENDARIA:  
*Wang Quan'an*  
AKTOREAK:  
*Yu Nan, Bater, Senge, Peng Hongxiang...*

Tuya Mongolian bizi da, seme bi eta senar ezinduearekin. Senarrak istripua izan zuenetik berak egin behar du lan guztia eta Tuya gaixotu egin da. Sendagileak zaintzeko eskatzen dionean senarrak konponbidea aurkituko du: dibortzioa...

## ETXEBIZITZAK

- Isasin pisua salgai. Logela bi, egongela, sukalde, bainugela eta komuna. Berria, guztiz jantzita. Dena kanpora eta berogailua. Tel. 627-095017.
- Barrera 36an pisua salgai. 80 m<sup>2</sup>. Hiru logela, egongela, sukalde eta komuna. Despentsa eta ganbara. Igogailua eta kaldera. Terraza eder bi. Tel. 679-410100.
- Legarreko dorreetan pisua salgai. Hiru logela, egongela, sukalde, komun bi. Balkoia eta despentsa. Eguzkitsua. Tel. 653-733357.
- Jardinetan pisua salgai. Logela bi, egongela, sukalde-jangela eta komuna. Berriztua eta balkoiarekin. 195.000 euro. Tel. 636-438918.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 626-380238.
- Eibarren edo inguruan pisua edo logela hartuko nuke alokairuan. Tel. 625-265942.
- Bikoteak Eibarren pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 680-579670. Egoitz.
- Debabarrenean pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 662-239392.
- Soralezuko Rabal kalean pisua salgai. 64 m<sup>2</sup>. Logela bi, egongela, sukalde eta komuna. Tel. 658-339709.
- Elgoibarko erdialdean pisua salgai. 136 m<sup>2</sup>. Tel. 619-409273.

## LOKALAK

- Eibarren garajea hartuko nuke alokairuan. Tel. 620-160303.
- Elgoibarko Sigma poligonoan pabilioiak salgai (200 eta 400 m<sup>2</sup>koak). Tel. 619-409273.

## SALEROSKETAK

- Tintin-en abenturen bideoak salgai (14). Zortzi euro. Tel. 943-120030.
- Musika kate profesionala salgai: etapa das 250W; MP-3 5810-N cd fonestar; array ps-8" kaxa bi; eta audio phony XS-2 nahasketa-mahaia. Tel. 615-727286. Aitor.
- Yamaha 421D gitarra elektrikoa salgai. Seymour Duncan pastillekin. Tel. 665-732640. Aitor.

## AUTOAK

- Opel Vectra GT 2.0 salgai. 130cv. AIT eta udal zerga ordainduta. 1989koa. Tel. 943 70 47 05. Ander.
- ADRIA karabana salgai, abantzearekin. Barruan gordeta egon da. Tel. 659-621308.
- Renault Traffic ekipatua salgai. Bidaia-tzeko 5 plaza, 4 lo egiteko. Sukalde guztiz ekipatua, igo daitekeen sabaia, berogailu estatikoa eta jarleku giratorioak. Dutxa, toldo eta bizikletak eta eskiak eramateko. 75.000 km. 2003 urtekoa. Egoera onean. Tel. 658-710899 edo 685-725840.

## ANIMALIAK

- Hilabete biko ehiza-txakurra oparitzen da. Tel. 943-120835.

## LANA

- Mutila eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 617-635744.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 638-726007.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu edo kamarera lana egiteko. Esperientziarekin. Tel. 608-719981.
- Neska eskaintzen da sukalde laguntzaile, garbiketa lanak eta umeak zaintzeko. Tel. 666-146666.
- Neska behar da uztailean umeak zaintzeko. Tel. 943-120184.
- Neska euskalduna behar da umeak zaintzeko. Tel. 677-858244.
- Mutila eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 626-380238.
- Neska eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 626-380238.
- Neska behar da ileapaindegirako. Ofiziala edo laguntzailea. Tel. 943-207630. M.Carmen.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde umeak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 943-254314.
- Emakumea eskaintzen da goizez umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 686-435056.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 616-230814.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 648-210838.
- Neska arduratsua eskaintzen da goizez etxeak edo pegorak garbitzeko. Tel. 665-726288.
- Kamarera/o behar da terraza batean lan egiteko. Tel. 943-701207.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 679-578511.
- Emakumea eskaintzen da gauzez edo orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 690-199860.
- Neska eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 635-355168.
- Neska eskaintzen da arratsalde umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 666-815008.
- Emakumea eskaintzen da goizez edo orduka edozein lanerako. Tel. 656-781743.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 648-603029.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 606-169667.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Geriatrian esperientziarekin. Tel. 699-576107.
- Kamarera behar da asteburuetarako. Tel. 943-121262.
- Neska eskaintzen da goizez etxea garbitu edo propaganda banatzeko. Tel. 690-791689.
- Neska eskaintzen da umeak eta nagusiak zaintzeko, eta baita garbiketatarako. Tel. 608-376387.
- Gizon euskalduna eskaintzen da nagusiak zaindu edo pasiatzeko. Tel. 652-766525.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketatarako. Esperientziaduna. Tel. 678-939382.
- Sukaldaria edo sukalde-laguntzailea behar da jatetxe baterako. Tel. 943-206868 eta 661-700440.
- Emakumea eskaintzen da orduka pertsonak zaintzeko (externa). Tel. 679-095634.
- Gizona eskaintzen da eraikuntzan peoi lanean aritzeko, baita pulimentoan ere. Tel. 943-530718 eta 605-363960.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (interna). Tel. 943-530744 eta 645-359279. Nuri.
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko eta josteko. Tel. 943-742201 eta 652-715908. Araceli.
- Emakumea behar da umeak zaintzeko. Esperientziaduna. Tel. 943-700400.
- Emakume euskalduna behar da umea zaintzeko. Tel. 615-756681.
- Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanerako. Lanordua: goizez edo arratsalde. Tel. 605-772606.
- Mutila eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 626-536566.
- Neska eskaintzen da umeak eta nagusiak zaindu, etxeko lanak egin eta garbiketatarako. Tel. 626-536566.
- Neska eskaintzen da umeak eta nagusiak zaindu, etxeko lanak egin eta garbiketatarako. Tel. 620-336722.

Iragarkiak ipintzeko:  
943-200918 (Marisol).

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako **PREZIOAK** honakoak dira: **Etxeak, lokalak, garajeak:** alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. **Autoak:** 10 euro. **Doaneko iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.**

## ...eta musu bat zuretako

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 3 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 6 euro. Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, GORKA  
Amillategi, atzo urtiak bete zenittuan-eta. Riki, Amaia, Mikel eta Asierren partez. Oin beziñ alaia jarraitu daizula!



Zorionak, MARKEL,  
hillaren 16xan sei urte egingo dittuzulako. Zure lagun guztien eta famelixa osuaren partez.



Zorionak, ASIER, gaur sei urte egingo dittuzu-eta. Lagunak eta famelixak egun paregabia opa deutsue.



Zorionak, ANDONE  
Agote Gorostizaga, astelehenian zure lehelengo urtebetetzia da-eta. Famelixaren partez.




Zorionak, GORKA,  
eguenian bost urte egin zenittualako. Patxo erraldoia, aitta, ama eta Naroaren partez.



Zorionak, IONE  
Arritokieta, hillaren 11an urtebete egin zenduan-eta. Aitaxo eta amatxoren partez.

## DBH amaitu ondoren

### Heziketa Zikloa



### Erdi-Maila A/D ereduak

## 2 urtez

3 hilabeteko praktikak enpresan

Arloak:


- Mekanizazioa
- Makineria eta linea errobideen instalazioa eta mantentimendu elektromekanikoa

Sarbide froga eginez gero Goi-Mailara pasa daiteke

**Titulua: Teknikaria**

## Batxilergoa ikasi ondoren

### Heziketa Zikloa



### Goi-Maila A/D ereduak

## 2 urtez

+ 3 urtez = eman 5ekoak!

3 hilabeteko praktikak enpresan

Arloak:

- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa(\*)
- Industri ekipoen mantentimendua(\*\*)

## 3 urtez

3 urtetako lan esperientzia

- BERRIA: **IKASI ETA LAN** (\*) arloetan

**Titulua: Goi-mailako Teknikaria**  
POI metodologia (PBL)  
Irakaskuntza Eleanitza

## Goi-Mailako Zikloen ondoren

### Ingeniaritza



### Eskola

3 urtetako lan esperientzia.

Ezaugarriak:

- Lan esperientzia lortu ikasten ari zarela
- Ikasketak ordaindu irabazitakoarekin
- Boloniako itunean indarrean dagoen titulu europar ofiziala
- Atzerrian lan-egonaldia

**Titulua: Ingeniaria**  
Txandakako Metodologia  
Irakaskuntza Eleanitza



# Ate irekiak:

# Apirilak 19, larunbata - goizeko 11:00etan

Klase teoriko  
zein praktikoak  
norberak nahi  
dituenean

Klase teorikoak  
ikusentzunezkoen  
abantailak  
erabilita

Merkantziak  
eta bidaiariak  
garraiatzeko  
nazioarteko  
agentzia ziuertagiriak  
lortzeko ikastaroak

GIDATZEKO  
KARNET  
GUZTIAK

SOLOZABAL  
autoeskolak

HELBIDE BERRIA  
Estaziño kalea, 8

Tel. 943 70 23 84

ETESA

Tfnoa, 943 12 19 73 - Faxa, 943 12 70 68  
Bidebarrieta, 66 - 428 Postakutxa - 20600 EIBAR  
e-mail: [etesa@euskalnet.net](mailto:etesa@euskalnet.net)



ALTZARIAK-AULKIAK



BULEGOAK BANATZEKO MANPARAK



BULEGOETAKO INSTALAZIO OSOA